

# ttipi-ttapa

## GEHIEGIZKO PISUAREN ETA OBESITATEAREN KONTRA LANEAN ARI DIRA MALERREKAN ETA BERTIZARANAN

Gehiegizko pisua eta obesitatea duten haurren tasa haundiak dituztela ikusita, *Atxikiz pausoka*, *zoriontsu haziz* proiektua lantzen hasi dira berriz Malerrekan eta Bertizaranan. 2018an paratu zuten martxan, baina pandemiarekin alde batera utzi behar izan zuten. / 8



## Doinuele euskarazko plazen sarea

Euskara hutsezko azokak eta plazak antolatuz, Doinuele sarea sortu dute. Tartean dira Baztango Ilbeltza eta Sarako Ikusi Mikusi / 11

### SINADURAK



ZOZKETA / 52



**Unax Eraso Iruritako Mendi Duatloiko antolatzailearekin solasean** / 32

**Gradu akaberako lanen bekak banatu ditu Baztango Udalak** / 33



**Abian da Baztan- Errekako Laxoa Txapelketaren 43. edizioa** / 42

**Beti Gazteko Karmelo eta Ander Mitxelena aita-semeak munduko txapelketan** / 43

# BERA LESACA

## Agenda 2023

**APIRILA  
MAIATZA**

[www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)

APIRILA	
<b>20</b> ORTZEKUNA 17:30 Lesakako Liburutegia	<b>IPUIN KONTALARIA SORGINA TXIRULINA</b> <b>LESACA</b>
<b>21</b> ORTZIRALEA Joseba Sarrionandia 18:00 Ileri Liburutegia Antolatzailea Bertzistako Euskara Mahaiaren bitartez Laguntzailea Nafarroako Gobernua	<b>LITERATURA GERALDIAK EGOERAK ETA LIBURUAK</b> <b>BERA</b>
<b>22</b> LARUNBATA Eskoladik egun guzian zehar. Antolatzailea: Kultura eta Lesakako sareko Peminista   <b>HAURRAREN EGUNA</b> Antolatzailea: Inio eta Tintinonak Gureak	<b>XULUBEST!</b> <b>LESACA</b>
<b>22</b> LARUNBATA 16:00-20:00 Altxabako Irudiaz Antolatzailea: Ikeritza eta irudiazko garapen elkartea	<b>ADUR EKINTZA KULTURALAK PUEGARRIAK</b> <b>BERA</b>
<b>22</b> LARUNBATA Pirinioetako GR-11 zeharkaldien grabatutako dokumentala 18:00 Dendakidatzen Antolatzailea: Agirre Mendi Taldea	<b>BIDEO PROIEKZIOA 21 MOTUS PER CAMINAR</b> <b>BERA</b>
<b>27</b> ORTZEKUNA Berritako Kultur Etxea	<b>KONTZERTUA NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA</b> <b>LESACA</b>
<b>28</b> ORTZIRALEA 19:00 Kultur Etxea	<b>DOKUMENTALA CONTRABANDO Y EVASION EN EL PIRINEO NAVARRO</b> <b>BERA</b>
<b>29</b> LARUNBATA 10:30 Beldu Plaza	<b>MERKATU TTIKIA</b> <b>LESACA</b>
<b>29</b> LARUNBATA Geltze Tiki Oskalo patina	<b>AZIENDA FERIA</b> <b>BERA</b>
<b>29</b> LARUNBATA 19:00 Berritako Kultur Etxea Sarrerak www.lesaka.eus	<b>DNA JAIALDIA 2023 NIK-EU (DANTZA GARAIKIDEA)</b> <b>LESACA</b>
<b>30</b> IGANDEA 18:30 Kultur Etxea Sarrerak 5€ Antolatzailea: Nafarroako Gobernua	<b>DNA PROGRAMA TOGETHER TO GET THERE (DANTZA EMANALDIA)</b> <b>BERA</b>
<b>30</b> IGANDEA 19:00 Berritako Kultur Etxea Sarrerak www.lesaka.eus	<b>HAMAR URTE HAMAIIKA DINAMIKA NEOMAK</b> <b>LESACA</b>
<b>MAIATZA</b>	
<b>5</b> ORTZIRALEA	<b>KONTZERTUA MUSIKA ESKOLA</b> <b>LESACA</b>
<b>6</b> LARUNBATA 11:30-15:00 Tiki Oskalo patina Antolatzailea: Dendakidatzen Topagunea	<b>EDASOKO EUSKARA ETA KULTURA AZOKA</b> <b>BERA</b>
<b>7</b> IGANDEA Berritako Kultur Etxea	<b>HAMAR URTE HAMAIIKA DINAMIKA ANONYME POPULAR</b> <b>LESACA</b>
<b>13</b> LARUNBATA Berritako Kultur Etxea	<b>ABESBATZEN TOPAKETA</b> <b>LESACA</b>
<b>13</b> LARUNBATA 18:30-13:30 Dendakidatzen	<b>BERTAKO EKIDIZLEEN MERKATUA</b> <b>BERA</b>
<b>14</b> IGANDEA	<b>MARTXA ZIKLOTURISTA SALVADOR YANCIREN OROIMENAZ</b> <b>LESACA</b>

## ttiipi-ttapa

# LIDERRAK gure eskualdean

baita azterketa egiterakoan  
CIESek Nafarroa Garaiko  
mendialdean hartu duen  
111 udalerrien eremuan ere.

2.000 irakurle  
**BERRIA**

3.000 irakurle  
**GARA**

5.000 irakurle  
**DIARIO DE NAVARRA**

5.000 irakurle  
**BERTZE BATZUK**

8.000 irakurle  
**DIARIO DE NOTICIAS**

30.000 irakurle  
**TTIPI-TTAPA**

### ADINAREN ARABERA

14-19		%6,4
20-24		%12,9
25-34		%9,3
35-44		%24,8
45-54		%15,8
55-64		%15,6
+64		%15,1

### IKASKETA MAILAREN ARABERA

	%28,6	Unibertsitatea
	%14,8	Cinarrizko ikasketak
	%21,2	Oinarrizko batxilergoa
	%35,2	Goi mailako batxilergoa

### SEXUAREN ARABERA

♀ **%57,3**  
EMAKUMEAK

♂ **%42,7**  
GIZONAK

DATU ITURRIA: CIES, 2022ko bigarren neurketa



NIRE TXANDA

GARAZI ZABALETA URKIOLA

## Garapena... noren garaipena?

Garapen jasagarria, energia trantsizioa, berriztagarriak, berdea... azken boladan dauden hitz eta kontzeptuen zerrenda amaigabea. Edozer asmatzeko gai gara, bizitza kontsumitzeko dugun egungo modua mantentzearen izenean. Erosotasunaren izenean. Munduaren amaiera onartzera iritsi gara, gilda eta garagardo artean, larritasun handiegirik gabe. «Munduaren bukaera badator, gilda bat ahoan harrapa nazala behintzat». Baina, nola da posible munduaren bukaera kapitalismoaren eta kontsumo gizartearen bukaera baino askozaz errazago onartzea? Erosotasunaren izenean, ez al gabilta erotasunaren gurpilean bete-betea sartuta? Energia berriztagarriaren eta zentral eolikoaren ikusi dute batzuk aterabidea, ez ikusiarena eginez azpiegitura horiek eraikitze behar diren baliabideen eta horiek lortzeko mantendu beharreko eredu guztiz injustu eta kutsakorren aurrean. Ai, teknologia, teknologia, gure jainkosa berria... garapenaren eta jasagarritasunaren izenean... amen. Fede gutxiago eta ateo gehiago... arren.

**«EROSOTASUNAREN  
IZENEAN  
EROTASUNAREN  
GURPILEAN?»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

## Harri-garria!

Urrun joan gabe, ezagutzen ez dugun txokoren batera hurbiltzeko aro polita da Aste Santuko oporraldia. Natura, euskal mitologia, kirol egindako baserriko lana, harri-jasotzearen historia, Arkimedesen printzipioa, jolasak, gudetako katapultak eta bertze hainbat gai uztartzen dituen museo berezia deskubritu dugu aurten, etxeko atarian.

## NABARMENTZEKOAK



**GOIURI  
URRA**  
MOTO GIDARIA



**MANEX  
ETXEBERRI-PACHECO**  
PILOTARIA

Gouiuri Urria Yecora lesakako motorgidariak bere lehen garaipena lortu du lehenengo lasterketan. *Cross-country* modalitatean lehiatu zen, kadeteen mailan.

Sarako Manex Etxeberri-Pacheco pilotariak txapela irabazi du Euskal Herriko esku huska buruz buru trinketea. Finalean 30-20 nagusitu zitzaion Baigorriko Mattin Etxeberriari.

## GIBELERA BEGIRA



2011-11-10 · TTIPI-TTAPA · 554 zk.

## 'Alkasoroko benta'-ri buruz solasean

Lesaka eta Bera artean dago Alkasoro, duela hamar urte Mikel Tabernak bere lehen eleberrirako sortu zuen Bortziritako seigarren herria. 60 eta 70. hamarkaden argazkia egiten du idazleak eleberrian, Alkasoroko bentako semearen begietatik. Eskualdea hunkitu zuten egiazko bi gertakari daude oinarrian eta horiekin batera, baita fikziozko hainbat kontu ere. «Garai latzak izan ziren baina baita ederrak ere. Jendeak liburua gustura irakurtzea nahi nuen eta ez nion errealismoa kendu nahi», kontatu zion TTIPI-TTAPAri. «Nik bizi izan dudana hamarkadan eta eskualdean kokatu dut pertsonaia. Inguruan ikusi, bizi eta entzundakotik hartu dut eleberria idazteko, nik sentitu dudana bertzei ere sentiarazi nahi nielako».



erran.  
eus



**Argitaratzailea**  
Ttiipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttiipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
**Berriemaileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,  
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,  
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,  
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,  
Maitane Maritorea, Arantza  
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione  
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea  
Mortalena, Jean Louis Bessonart,  
Ganex Etxeberriagarai, Maialen  
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier  
Zulaika.

**Fundazioaren Presidentea**  
Paskual Rekalde  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia

**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senperoko  
udalak, Malerrekako Zerbitzuen  
Mankomunitatea.

**2023ko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi 45€  
eta Malerrekako 36€  
Leitza 36€  
Hego Euskal Herria 50€  
Ipar Euskal Herria, Europa 100€  
Amerika eta Australia 152€



## KOLABORAZIOAK

NAHIA SENPER MAZIZIOR

## Iturri zaharretatik edanez etorkizuna eraiki

Izaera herritarra, proiektu pedagogiko propioa duena eta kalitatezko hezkuntza eskaintzen duena. Haur, lehen eta bigarren hezkuntza euskaraz ematen duen Euskal Herriko eskola autonomoa da.

**Kooperatiba.** Jabetza, kudeaketa eta lana bazkideen esku dago, helburu sozialak baditu, gizarteari zerbitzu bat ematea, bazkideak elkartu egiten dituena.

**Ardatz nagusiak** euskara eta Euskal Herria dituen proiektua osatzen dute ikastolek.

**Sorreran bezala,** gurasoak, laguntzaileak, langileak, ikasle ohiak, etab. ikastolen motor eta sostengu dira, elkarlanean saihestu beharreko oztopoei aurre eginez.

**Tikiak** Handi munduko hizkuntza guttituen handitasuna aldarrikatzeko eta haien arteko zubiak eraikitzeko proiektuaren parte.

**Oztopo** guztien gainetik euskaraz bizitzeko nahiriari eutsiz, gure ametsa posiblea bihurtuz eta eguneroko hobetuz.

**Lankidetzeta,** bai ikasketa prozesuan baita auzolanean ere, ikastola osatzen dugun guztion partaidetzeta bultzatuz eta komunitatea indartuz.

**Animo** ikastola guztietako kideei. Elkarlanaz Euskal Herria euskalduna lortuko dugu.



IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

## Energia berriztagarrien aldeko apustua

Azken aldian, ezinegon handia sortu dute Irakurri eta Azkua proiektuek, eta ez da gutxiagorako. Proiektuak Zelena Renewable S.L.U.-renak dira. Irakurri proiektua Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaienen kokatuko litzateke, eta Azkua, aldiz, Etxalar, Igantzi, Sunbilla eta Arantzan. Beraz, Malerreka eta Bortzirriak makroproiektu eolikoek bete-betean harrapatu dituzte, eta horien berri, proiektuak nahiko aurreratuta daudenean enteratu gara herritarrek. Gauzak jendearen bizkar egiten direnean, interesaturiko alde asko dagoela garbi dago. Kanpotik etorri eta bertan agintzen dute, bertako biodibertsitatea, herritar eta herriaren lurrak... kontuan hartu gabe.

Nik badut ohitura nire hausnarketa egiteko, eta guztiz alde nago energia berriztagarrien erabilera «garbia» egiteko. Baina, proiektu hauek garbiak dira? Zer onura izan dezake guretzat? Pentsa dezakegu, lanpostuak sortuko dituztela, bertakoentzat lan egiteko aukerak sortuz. BA EZ! Pentsa dezakegu, parke eolikoak gure lurretan daudelako, energiaren prezioa murriztuko digutela. BA EZ! Orduan? Zertarako behar ditugu halako munstro erraldoiak gure mendi zoragarri hauetan? Bakar batzuk, beti bezala aberasteko?

### «ZERTARAKO HALAKO MUNSTRO ERRALDOIAK GURE MENDIETAN?»

Guztiz kezkarria iruditzen zait egoera. Ongi pentsa dezagun eta bakoitzak bere erabakia hartu ondoren, elkartu eta aurrera!

Baina, aldi berean, hilabetero etxera iristen den faktura ikusirik, irtenbideren bat bilatu behar dugula garbi ikusten dut. Badaukagu beste energia mota, agorrezina dena, eta gehienek erabil dezakeguna; EGUZKIA. Gaur egun, ez da zaila etxeetako teilatuetan eguzki panelak ikustea, agorrezina den energiaren baliatzea egunerokotasuneko beharrak asetzeko. Baina, denek aukera berdina al ditugu? Ba, ez jaun-andreak. Eguzki panelak jartzeko ere, lehen mailako eta bigarren mailako herritarrek gaude.

Etxe berri bat egiten duen edonork herriko antzinako etxeak ditugunak baino pribilegio gehiago ditu esparru honetan. Etxe berri bat egiten duen edonork etxeok teilatuetan eguzki indarra biltzen duten panelak jartzeko aukera duen bitartean, Vianako printzeak babesturiko etxeetan pentsaezina da halakorik jartzea. Oraindik ez dut zergatia ulertzen. Nire auzokoaren etxe berrian jar daitezke eta nire etxean ez? Zergatik? Arrazoiak bilaka estetika kontuak bakarrik datozkit burura, baina, nire etxean itsusi ematen duten bitartean, nire auzokoarenean ez?

Beti bezala, Vianako printzearen babesarekin topo egiten dugu, tamalez, etxe zahar hauek mantendu eta herriak bizirik mantendu nahi ditugun herritarrek frustratuz.

## 11 GALDERA LABUR

FELIX LOIARTE IRIBARREN GOIZUETAKO ARGAZKILARIA

## «Argazkien bidez herriko bizia zabaltzen da»

**Nola definituko zenuke zeure burua?**

Pertsona isila naiz, lotsatia pixkat bat.

**Zein dira zure zaletasunak?**

Eskulanak atsegin ditut, baita ikusentzunezkoen edizioa, argazkiak, bideoak... ere. Onddo eta perretxikoak biltzea ere gustuko dut.

**Noiz hasi zinen argazkilaritzarekin?**

Argazkiak ateratzen 18-20 urterekin hasi nintzen, baina argazkilaritzarekin, orain 15 bat urte.

**Nola ezagutu zenuen argazkilaritzaren mundua?**

Txikitatik izan dut kuriositatea, ez da gauza jakin bat izan bulztatu nauena.

**Eta nola ikasi zenuen argazkiak ateratzen?**

Intuizioz ateratzea eta gustuko dudana ala ez ikustea izan da, gehienbat, nire ikasteko era. Azken urte hauetan, Interneta dela medio, tutorialak eta bideoak ikusiz. Gainera, etxeako ikastaro labur bat oparitu zidaten makina batekin batera.

**Zein argazki mota gustatzen zaizu gehiago egitea?**

Erretratoa gustuko dut, baita paisaiak ere.

**Herriko ekitaldien argazkiak egiten dituzu. Garrantzitsua da herriko bizitza dokumentatzea?**

Herriko ekitaldiak zabaltzea garrantzitsua iruditzen zait, nolabait herriko bizia zabaltzen du. Eta festa giroan, argazkia ateratzeko jendea gustura jartzen dela ikusteak, gustura sentiarazten nau.



**Noizbait bertzelako argazkilaritza motarik probatu duzu?**

Kamerarekin esperimentatzea gustatzen zait; diafragma eta abiadurarekin jokatzea, ez-ohiko ikuspuntutik saiatzea... hau denborarekin hartzen dudanean, baina normalean argazki azkarrak ateratzea tokatzen zait.

**Digitala edo analogikoa nahiago?**

Gaur egun digitalaren aldekoa egingo nuke, analogikoak beste baliabide batzuk eskatzen dituelako, eskuratzeko zaila-

goak direnak, errebelatzea etab. Digitalak, berriz, editatzeko, muntatzeko... aukera ematen du. Hori bai, bukaera analogikoa, paperean, oso egokia iruditzen zait.

**Zure asmoak epe motzera?**

Aspaldian atera izan ditudan argazkien negatiboak digitalizatzea gustatuko litzaidake, horretan hasia naiz.

**Eta epe luzera?**

Ez dut asmo berezirik, momentuan epe motzeko asmoekin nahiko dut, baina, auskalo...



**Bilduma berria**

1951tik  
**Casa Cambra**  
Ientzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

**Albornozak**  
**Mantelak**  
**Kuxinak**  
**Edredoi nordikoak**  
**Ohe estalkiak**  
**Maindireak**  
**Toailak**  
**Edredoi-azal nordikoak**



## IRAKURLEAK MINTZO

### Berako euskal preso eta errepresaliatuen lagunen oharra

#### IÑAKI GOGORTZA BILLABONA

BERAKO EUSKAL PRESO ETA ERREPRESALIATUEN LAGUNEN IZENEAN

Espainiar estatuak 1989an eman zion hasiera euskal preso politikoen sakabanaketari.

Urte bat beranduago, 1990ean, Joxelu Etxeberria Lekuona atxilotu zuten eta orduan hasi zen Beran *Euskal presoak Euskal Herrira* ekimena.

Ekimen horrek abiada biziagoa hartu zuen ondorengo urteetan eta ohikoa bihurtu zen ortziralero Mukixu zubian elkarretaratzea egitea *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean.

Ez zen ekimen bakarra izan, zeren eta herrian gertatutako atxilotze, tortura eta batez ere kartzela politikak Kottoren heriotza eragin izanak, herritarrak erantzun tinkoa ematera bultzatu zituen.

Halere, erran behar da *Euskal presoak Euskal Herrira* ortziralero aldarrikatzea izan dela urte hauetan guztietan gauzatu den ekimen iraunkorra.

Kontaezinak izanen ziren urte hauetan guztietan (30 baina gehiago) bizi izandako momentu bereziak.

Gaur erraten ahal dugu sakabanaketa politika amaitu dela nahiz eta ondorio latzak (16 heriotza eta istripu aunitz) eragin dituen.

Urte hauetan elkarretaratzearekin bat egin duten guztiei mila esker!

Bereziki gogoan ditugu, sufrimenduari aurre eginez, gurekin izan ditugun senideak.

Bidean galdu ditugunak ere gogoan ditugu. Agur eta ohore!

Borroka ez da bukatu eta aitzinera segitu behar dugu euskal preso politiko, deportatu eta iheslariak etxean eta libre izan arte.

Hemendik aitzinera hilabeteko azken ortziraletan Berako Mukixu zubian elkartzen segituko dugu, Euskal Herriko bertze herri aunitzetan bezala, eta *Etxera* lelopean.

Lortuko dugu!

## BOTA BERTSOA



**PATXI LARRETXEIA LAZKANO**  
ARANTZAKO BERTSOLARIA

### Maiatzak 1

Doinua: Habanera

*Maiatzaren 1ean dugu  
haundia ospakizuna,  
langileen batasuna  
gogoratzeko eguna,  
klase borrokak badauka  
egunerokotasuna,  
zeregin garrantzitsua  
gure aurrean duguna,  
gure borrokak eduki  
dezan ozen oihartzuna,  
jarri dezagun horretan  
bihotza ta maitasuna,  
gure eskutan baitago  
benetan etorkizuna,  
aurrera langilegoa  
eta gora batasuna.*

### IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@tppi.eus



948 63 54 58

# Zaindu maite duzun hori...

## Nola erran?

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

### Erdal hitzen deklinabidea

Gurean tradizio idatzirik ez duten erdal hitz berri batzuk jatorriz idazten diren bezala idazten dira euskaraz ere, grafia aldatu gabe: bungalow, campus, chantilly, collage, curriculum, sandwich, Google, Greenpeace, Shakespeare, Sydney...

Horietako batzuek ez dute arazorik sortzen deklinatzeko, garbi baitago hitza. Eta gainerakoek deklinabide berbera dute: judoa daukat; karatean aritu; balleta dantzatu; campingik ez aurkitu (kanpin forma ere ageri da Euskaltzaindiaren Hiztegian; beraz, idatz daiteke kanpinik ez aurkitu ere)...

Bertze erdal hitz batzuetan, ordea, hitzaren azken letra eta hitz horren fonema ez datoz bat. Halakoetan, zalantza sortzen da: nola deklinatu behar dira, adibidez, Shakespeare? ala [xekspir]?, François? ala [franzua]?, croissant? ala [kruasan]?...; Alegia, zer hartu behar da kontuan deklinabide-atzizkia eransteko orduan, letra ala hotsa? Hauek dira gomendioak:

**-y letraz amaitutako hitzak i letraz amaitutako hitzak bezala deklinatzen dira.**

-Sidneyko biztanleak.

-Annecyn bizi zen, baina Jerseyra (\*Jerseyera) joan zen bizitzera.

**-w letraz amaitutako hitzak u letraz amaitutako hitzak bezala deklinatzen dira.**

-Bungalowraino lagundu nion (\*bungaloweraino)

-Gaurko showko protagonista Miren izan da (\*showeko)

**-h letraz amaitutako hitzak, idatziz, azken hatxea kontuan hartu gabe deklinatzen dira.** Hau da, amaierako hatxearen aitzineko letra kontuan hartuta, dagokien bezala deklinatzen dira. Hathez amaitutako hitzak deklinatzean, izen berezia izan zein izen arrunta izan, marratxoa erabil daiteke izenaren berezko itxura agerian uzteko gisan. Marratxoa erabiltzea ez da nahitaezkoa, aukerakoa baizik.

-Sarah-ren lagunak.

-Sarah-k idatzitako gutunak.

## Hieroglifikoa

Erratzun sortua...



+



+



+



## Zein da zuzena

**\*'Tatuaia' ala 'tatuaje'?**

Euskaltzaindiak batasunerako tatuaje hobetsi du. Oro har, -aje gordetzea da bidea eta hona hemen adibide batzuk: brikolaje, enbalaje, erreportaje, garaje, makillaje, masaje, paraje, portzentaje... Eta beraz, ez dira forma onartuak \*makilaia, \*masaia, \*ekipaia...

Baina badira salbuespenak: bidaia, bisaia, kuraia, lengoaia, paisaia, pertsonaia eta xantaia. Kontuan izan azken adibide horiek -a itsatsia dutela.

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...



info@ttipi.eus



744 48 43 61

## «Ez dugu onartuago den itxurarik nahi, eredu osasungarria baizik»

EDURNE ARRAZUBI, ARANTXA AGERRE ETA IOSU PEREZ 'ATXIKIZ PAUSOKA, ZORIONTSU HAZIZ'

Malerrekako eta Bertizaranako haurren obesitatearen kopurua jaisteko eta elikadura ohitura osasuntsuak indartzeko 'Atxikiz pausoka, zoriontsu haziz' proiektua berrartu dute

**G. PIKABEA** MALERREKA/BERTIZARANA Haurren gehiegizko pisuarekin eta obesitatearekin kezkatuta daude Malerrekako eta Bertizaranako. Nafarroako tasarik haundienetarikoa dituzte eta egoera «larria» dela ohartarazi dute Edurne Arrazubi Labiano, Arantxa Agerre Irigoien eta Iosu Perez Aranburu Doneztebeko Osasun Zentroko gizarte langileak, pediatriako erizainak eta pediatriak. Horri erantzunez, obesitatearen kopurua jaisteko eta elikadura ohitura osasuntsuak indartzeko, 2018an *Atxikiz pausoka, zoriontsu haziz* proiektua paratu zuten martxan. Pandemia tarteko, alde batera utzi behar izan zuten, baina

berriz esku artean dute. Oraingoz, Doneztebeko Osasun Zentroa, Doneztebeko eskola eta bertako jangela kudeatzen duen enpresa, Malerrekako Gizarte Zerbitzua, Doneztebeko Erreka Kirol Elkarte eta Askin Haur Eskola bildu dira lantaldera, baina adierazi dutenez, «pandemia baino lehen parte hartu zuten erakundeekin harremanetan jartzen saiatzen ari gara: guraso elkarteak, ikastetxe guztiak, kultur eta kirol elkarteak...». Argi utzi dute: «Ardura denonda». Gisa berean, gehiegizko pisuak edo obesitateak osasunean dituen ondorioez ohartarazi dute: «ondorio fisikoak eta psikologikoak eragiten ditu».

**2018an hasi zineten *Atxikiz pausoka, zoriontsu haziz* proiektuarekin lanean. Pandemiarekin alde batera utzi behar izan zuten, baina bitartean zein bide egin zuen?** 2016an Doneztebeko Osasun Zentroak, Doneztebeko eskolako zuzendaritzarekin elkarlanean, familiek elikaduraz duten interesari buruzko inkesta bat egin zuen. Emaitzetan argi gelditu zen familiek ez zutelako haurren obesitatea arazotzat hartzen. Gisa horretara, elikadura ohiturak pediatria kontsultatik bakarrik aldatzea zaila izanzen zela ikusi zen. Horrekin lotuta, Osasun Publikoaren Institutuko kideek gure bailaretako obesitateari buruz-

ko solasaldi bat eman zieten eskualdeko erakunde batzuei. Orduan hasi genuen *Atxikiz pausoka, zoriontsu haziz* proiektua. 2018an eta 2019an hainbat solasaldi egin genituen, eskolatan elikadura ohiturak aldatzeko ekimenak garatu genituen, fruta banatzeko dirulaguntza eman haur eskolan, kirol jardueretan fruta jatearen aldeko jarduerak egin, Doneztebeko eskolako ikasleak igerilekura joan zitezkeen garraioa paratu... Bertzetik, osasun zentroan mediku azterketetan osasuntsu jateari buruzko informazioa banatzen hasi ginen, baita kirola egiteko aholkuak edota behar eta nahi zutenei laguntza ematen ere.

**Ikasturte honi begira, zein egitasmo dituzue esku artean?**

Hasi berriak gara eta zehazten ari gara. Aitzindu dezakegu azukrearen kontsumoa murrizteko helburuarekin hainbat ekintza egiten ditugula. Horrez gain, Doneztebeko eskolatik Lesakako igerilekura joateko aukera izanzen dute. Elikaduraren garrantziaz ohartarazteko sentsibilizazio kanpainak ere egiten ditugu; aholkuak emanez etxeetara eskutitzak bidaliko ditugu eta kirol jarduerak batzuk antolatuzko asmoa dugu.

### 'Atxikiz pausoka, zoriontsu haziz' proiektuaren lantaldeko kideekin solasean



Marian Lasarte Baraibar.

#### Askin Haur Eskola

«Obesitatea ez da familien arazo bakarrik. Zazpi egunetik bostetan haurrek eskolan bazkaltzen dute eta gure ardura da zer eta nola ematen diegun jatera. Kontzientzia hartuz, hobeto egiten dugu aurrera».



Ernesto Dominguez Olea.

#### Doneztebeko eskola

«Datuak argiak dira eta elkarlana azpimarratzekoa. Interes berezia dugu eta eskolan, osasuntsuak diren ohiturak bultzatuko ditugu, jangelan eta gosarrietan. Ohitura osasungarriak eskolan ere sustatu behar dira».



I. Altu, E. Anzizar eta B. Alberro.

#### Gizarte Zerbitzuak

«Geroko osasunaren bidea denon artean orain eraiki behar dugu. Argi izan behar dugu ongizatea denon ardura dela. Horregatik pixkanaka-pixkanaka lan sare egonkorra eraiki nahi dugu».




Joseba Legarra Erasun.

#### Erreka Kirol Elkarte

«Datuekin harriturik gelditu ginen. Aurretik gai honekin arituak ginen, egoera zein zen bagenekien, baina argi geneukan Errekak elkarlanaren parte izan behar zuela. Ea denon artean umeen osasuna hobetzerik dugun».





Ezkerretik hasita, Arantxa Agerre Irigoien pediatriako erizaina, Iosu Perez Aranburu pediatra eta Edurne Arrazubi Labiano gizarte langilea.

### **Malerrekako eta Bertizaranako haurren obesitatearen eta gehiegizko pisuaren tasa Nafarroako haundienetarikoa dela erran duzue. Zein da egoera?**

Egoera ez da batere ona. 2023an Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokiak txostena argitaratu du 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte hartutako datuekin, eta emaitza txarrak ditugu. Gure eremuari erreparatu, 0 eta 5 urte bitarteko haurretan, mutiletan gehiegizko pisua Nafarroako altuena dugu eta nesketan seigarren postuan gaude. Obesitateari dagokionez, mutiletan Nafarroako tasarik altuena dugu eta nesketan zazpigarren postuan gaude. 6 eta 9 urte bitartekoetan, mutiletan gehiegizko pisuaren kasuan, hirugarren postuan gaude eta nesketan lehenbiziko. Obesitateari begiratu, mutiletan hamargarrenak gara eta nesketan hirugarrenak. 10etik 14 urtera artekoetan, gehiegizko pisua dutenak kontuan hartuz, mutiletan bederatzigarrenak gara eta nesketan hamabigarrenak. Obesitatearen kasuan, mutiletan hamargarrenak eta nesketan laugarrenak gara. Laburbilduz, Malerrekako eta Bertizaranako eremua gehiegizko pisua edota obesitatea duten haurren

ehuneko haundiena duen eskualdeetako bat da, batez ere, 0-5 eta 6-9 adin tartean.

### **Bereziki 0-5 urte eta 6-9 urte bitartekoen taldeetan sumatu duzue gehiegizko pisua. Zergatik izaten ahal da?**

Gure eskualdean ume indartsuak ez daude gaizki ikusiak, eredu-garriztat ditugu. Haur meheak okerrago ikusiak dira.

### **Nerabezaroan zer gertatzen da?**

Aunitzek kirola egiten dute eta eskualdean badira horretarako hainbat aukera: futbola, esku-baloia, judoa, dantzak... Nerabezaroan datuak hobekak dira. Gizona izatea ez dago horren onartua, eta kasu gehiago egiten zaio gaiari.

### **Adinarekin arazoak larritzen ahal direla aipatu izan duzue. Haurretan gehiegizko pisua dutenek etorkizunean ere hala izaten dute?**

Ikerketa aunitzek diote haurtzaroko ohiturek ondorioak dituztela helduaroan. Beraz, ttikitatik janariari, kirolari, harreman sozialei eta bertze hainbat alorri buruzko ohitura osa-

suntsuak erakusten badizkiegu, etorkizun hobea izanen dute. Haur gizen batek aukera haundia du heldua denean ere gizona izateko, eta gaur egun denok dakigu gizentasuna eritasun bat dela, eta hainbat arlotan ondorioak dituela: hipertentsioa, diabetesa, osteoporosia, emozionalki depresioa...

### **Eta gehiegizko pisuak zein ondorio ditu haurtzaroan?**

Haur gizen baten garapena ez da hoberena. Bere gehiegizko pisuak bere hezurak hazterakoan eta gorputzaren mugikortasunean eragiten du. Ondorioak arlo aunitzetan ikusten ahal ditugu. Ttikiak direnean guttiago mugitzen dira eta oroitu behar dugu garapen ona izateko mugimendua beharrezkoa dela; kokoragoak direnean beraien ongizate emozionala ere kaltetua izaten ahal da. Izan ere, mugatuak daude kirola egiteko, taldean ez dira horren onartuak izaten...

### **Ondorio fisikoez gain, ondorio psikologikoak ere aipatzen dira...**

Ondorio psikologikoak norberaren gorputzaren onarpenaren araberakoak dira. Ikertzaileek autokontzeptu maila ttikiagoak aurkitu dituzte haurren obesitate kasuetan eta horrek autoestimua baxuagoa sortzen du. Ondorioz, depresio maila altuagoak aurkitu dituzte, bertzeak bertze, obesitatearen duten haurrangan. Guk ez dugu gaur egungo estereotipo femininorik eta maskulinorik nahi; helburua osasuntsu izatea da, ongi jatea, kirola egin ahal izatea eta emozionalki indartsuak izatea. Horrelako umeak nahi ditugu, eta hori lortzeko ez diogu pisuari bakarrik ematen garrantzia. Ohitura eta oinarri osasuntsuak izatea garrantzitsuagoa da.

### **Pandemiarekin haurren obesitatearen datuek okerrera egin dute?**

Ezin dugu zehaztu, baina segur aski pandemiak arlo horretan ere kalte egin izanen digu. Denbora aunitz pasatu dugu etxean, atera gabe, lagunak ikusi gabe, kirola ezin eginez... Egoera horrek ez du lagundu.

### **Egoera larria da?**

Bai, egoera larria da, eta hori bideratzeko denok zerbaitekin egin behar dugu.

**Arazoa ez da Malerrekako edo Bertizaranako bakarrik. Obesitatea XXI. mendeko epidemia gisa izendatu izan dute...** →

**«ONDORIOAK ARLO AUNITZETAN IKUSTEN AHAL DITUGU»**

**«EGOERA LARRIA DA ETA DENOK ZERBAIT EGIN BEHAR DUGU»**

→ Bai, eta obesitateak osasunean zer eragin duen ikusten ari gara. Obesitateak bizia urte aunitzez murrizten du, eta urte horiekez dira behar bezain onak. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, 5 urtetik 19 urtera bitarteko neska-mutil obesoek kopurua hamar aldiz haunditu da azken lau hamarkada hauetan. Europa mailan, urtero obesitatea duten 400.000 ume gehiago daude. Gaur egun, Europako Batasunean arazo hori duten umeak guzira hamalau milioi dira.

**Obesitatea gaizki jatearekin bakarrik lotua dago?**

Ez. Gaur egun, badakigu obesitatea ez dagoela gaizki jatearekin bakarrik lotua. Bizimodu sedentarioak eta faktore genetikoez ere badute eragina. Baina argi dago gaizki jateak bere garrantzia duela.

**Ariketa fisikoa zenbateraino izan daiteke garrantzitsua?**

Ariketa fisikoak garrantzi handia du gizartean, baina batez ere haurtzaroen, hor sortzen baitira bizi guzirik oinarriak. Familia kirolari batean hazten bazara, segur aski kirola maiteko duzu. Familia gauza guzietarako eredu da, bai onerako, baita txarrerako ere.

**Bizi estiloa aunitz aldatzen ari da? Horrek zein ondorio ditu?**

Obesitatea duten haurren kasuen % 5ean bakarrik arrazoa genetikoa edo endokrinia da. Gainerakoetan, alegia, obesitatea duten haurren % 95ean, arrazoa kanpokoa da, hau da, bizimoduaren patroiei lotutakoa. Aldaketa sozialengatik dieta tradizionalak dentsitate energetiko handiko dietekin ordezkatu dira, eta horri bizi estilo sedentarioagoa eta mugikortasun aldaketak gehitu behar zaizkio. Teknologia berrien ondorioz, aisialdia pasiboagoa bihurtu da eta garraioetarako sarbidea haundiagoa denez, guttiago ibiltzen gara. Gainera, industriak eta publizitatea zapora erakargarria duten elikagaiak sustatzen ari dira, eta kaloria ugari dituzte. Bizi estiloa egokia ez badugu,



Bizimodu sedentarioak obesitatean eragina duela eta teknologia berriek aisialdia pasiboagoa egin dutela diote elkarrizketatuek.

ondorio txarrak izanen ditugu. Eta gure bizi estiloa osasuntsua izaten saiatzen bagara, ondorio onak.

**Elikadura ohiturak okertzen ari dira?**

Ez genuke hori horrela denik erranen. Kontua da lehen ez genituela horren eskura janari prozesatuak, edo pizzak, hamburgeresak... Eta bereziki gure eskualdean etxeko janaria jaten genuen. Gaur egun, familiak kontzienteago izan behar luke zer sartzen dugun gure erosketan poltsetan, arrazoi aunitzengatik errazagoa delako janari ez osasuntsua erostea: kozinatzeke denbora faltagatik, etxean janari hori maite dutelako, merkeagoa delako... Gainera, publizitate engainagarri aunitz dago, eta osasuntsuak ez diren produktuak erosten ditugu.

**Zer egin daiteke egoera horren kontra?**

Denon ardura da. Familiei dagokie erosketan osasuntsuak egitea, ongi kozinatzea, kirola egitea... Osasun zentroak, berriz,

informazioa eman eta familiei lagundu diezaieke, baita umei animatu ere, ongizate emozionalari garrantzia emanez... Gizartean, berriz, kirola egiteko aukera sortu behar dira, denek aukera izan dezaten kirol lehiakorrek eta ez lehiakorrek egiteko, hitzaldiak antolatu...

**Nola landu behar da gaia haurratik denean?**

Haurrak janari osasuntsuak zein diren eta zein ez jakin behar du. Litxarreriak egunero jateak beraien gorputzari kalte egiten diola erran behar zaie.

**Eta nerabea denean?**

Kasu horretan garrantzi gehiago eman behar zaio ongizate emozionalari. Adin horretan sare sozialetan ikusten dituzten pertsonak eroduztat dituzte eta ez dira beti eredu onak.

**Halakoetan bada elikaduraren nahasmenduak sortzeko arriskurik?**

Bai, eta gero eta gehiagotan ikusten ditugu halako kasuak. Eredu ez osasuntsuei erreparatzen diete eta horrek ondorioak

ekartzen ditu. Horregatik garrantzi handia du ongizate emozionalak, bakoitzak bere gorputza onartzeak, eta lagun sare bat izateak. Nerabeek ez dituzte gurasoak eroduztat, lagunak eta sare sozialak baizik. **Nola jokatu behar luke familiak?** Familiaren inplikazioa nahitaezkoa da. Beraiekin lan egin behar dugu, eta argi utzi behar dugu helburua ez dela gizartean onartuagoa den itxura lortzea. Helburua eredu osasungarriak lortzea da, kirola eginez, osasuntsu jenez eta emozionalki ume indartsuak haziz.

**Nola hartzen dute gaia familian?** Gehienek onartzen dute eta ongi esplikatuz lanean hasten dira. Familiak eredugarri izan behar du, bai janari ohituren aldetik, baita bizimoduari dagokionez ere, edo opariak egiterakoan. Batzuetan ez da erraza, ohitura batzuk hagitik barnatuak ditugulako, baina dena bezala, ongi esplikatuz egiten ahal da. Ez dugu ezagutzen nahita seme-alabei kalte egiten dion familia bat bera ere.

**Zerbait gaineratuko zenukete?** Eskualdean produktu freskoak, osasuntsuak eta bertakoak jateko aukera ezin hobea dugu, eta inguruak hainbat aukera ematen dizkigu aukera fisikoak egiteko. Probestu dezagun!

**«EREDUA FAMILIA DA, BAI ONERAKO, BAITA TXARRERAKO ERE»**

**«BIZI ESTILOA EGOKIA EZ BADA, TXARRAK IZANEN DIRA ONDORIOAK»**



Zortzi herritako zortzi ekimenek aurkeztu zuten Doinuele sarea martxoaren 15ean Bilbon. DANI BLANCO / ARGIA

# Euskal ekimenak plazaratzeko sarea

Literaturari eta musikari lotutako euskara hutsezko zortzi ekimenek bat egin dute Doinuele sarea. Helburua argi dute; euskaraz bizitzeko arnasguneak sortzea, eta elkarri lagunduz, ekimen hauek Euskal Herri osoan ezagutzera ematea

## R. OSKARIZ

«Euskal musikagintza eta literatura sustatzeko eta euskara hutsezko azokak eta plazak sartzeko modu bat». Horrela aurkeztu du Aitziber Zapiain (H)ilbeltzako kideak Doinuele. Hain zuzen ere, Euskal Herri osoko zortzi ekimenek osatu dute sarea: Baztango (H)ilbeltzak, Sarako Ikusi Mikusik, Galdakaoko Sormenek, Zarauzko Literaturiak, Azkoitiko Geure Gelatik ekimenak eta Ziburuko, Hernaniko eta Lazkaoko Liburu eta Disko Azokak.

Egitasmoetako kide batzuk elkartu ziren eta elkarlanean zerbait egiteko beharra zegoela erabaki zuten. «Gu Ziburu-koekin solastatu ginen, bertako azokatik abiatu baitzen hau dena antolatzekeo ideia, eta parte hartzea erabaki ge-

nuen, talde bakoitzak ekimena urteko sasoi batean antolatzen duen arren, Euskal Herrian zirkuitu bat badagoe-la erakusten duelako». Hasmentan azoken sarea bezala planteatu zuten, «baina ez ditugu bakarrik liburuak eta diskoak saltzen edo kontsumitzen, ekitaldi pila bat antolatzen ditugu, eta horregatik erabaki genuen plaza deitzea».

«Ikusgarritasuna lortzea eta indarrak batzea» dute helburu, «bateratasuna lortzea». Hortik dator taldearen izena, Doinuele, «musika eta elea

bateratzen dituelako». Gainera, egutegiak prestatzean elkarrekin aurkeztuko dituzte Doinueleren izenpean, «jendeak bere herritik kanpo egiten diren ekimenak ezagutzeko. Beharbada, (H)ilbeltzara eta Ziburura doana, Azkoitira joatera animatuko da egunen batean».

Euskaraz bizitzeko nahiak batzen ditu ekimen guztiak, «eta horretarako kultura euskaraz kontsumitzea ezinbertzekoa da. Kontsumitzea eta gozatzea. Baina ez ditugu gauzak alde, eta liburuak eta

**«IKUSGARRITASUNA LORTZEA ETA INDARRAK BATZEA DUGU HELBURU»**

**«KULTURA DA TRANSMISORAKO BIDERIK ERAGINKORRENA»**

diskoak ez daude modan. Gure errealitateak arras desberdinak dira; euskal hiztunen kopurua, egoera politikoa... ez dira berdinak Ziburun, Hernanin edo hemen. Badago neke bat, baina baita ilusio bat ere, eta elkartuta indar gehiago lortzen dugu. Ekimenak ikusgarritasuna duenean, antolakuntza indartsu dagoenean eta partaide aunitz dituean ez da hainbertze nabaritzen, baina ahulgune bat dugunean ongi dago ondokoaren bulkada izatea, norabidea ikusteko eta aitzinerat segitzeko».

## Transmisio kulturalaren garrantzia

Ekimen kulturaletan «transmisioa euskara hutsean izateko helburua argi dugu, bertzenaz segituan buelta eman eta gaztelerak edo frantsesak jaten gaituelako. Eta transmisioa historikoki musikaren eta hitzaren bidez eman da».

Gaur egun, ordea, «dena azkar eta momentuan nahi dugu. Ekimen hauekin bertzelako kontsumo bat sustatu nahi dugu; irakurzaletasuna, musika entzutea... eta horrek ekartzen duen plazerra. Adibidez, (H)ilbeltzan literatura irakurtzen dugu, bai, baina bertze ekimenak ere antolatzen ditugu. Egia da kontzertu bat entzutea errazagoa dela aunitzetan, baina momentu horretan pasarte bat, poema bat edo ipuin bat irakurtzen badizute, beharbada interesa piztu eta liburu bat irakurtzeko grina sortuko dizute».

Oinarri sendo batetik abiatzen dira; «euskaldun hiztunak bagara, baina euskara hutsean mintzatzeko, kontsumitzen eta bizitzen garenak ez gara aunitz, eta daukaguna zaindu behar dugu». Argi dute, aitzinera egiteko, «euskara hutsezko arnasgune hauek beharrezkoak direla eta bultzatu eta plazaratu behar ditugu, elkarri gogo hori transmititzeko. Hori da bidea». Horregatik, taldeko atekak irekiak daude euskara hutsezko ekimen guztiei.

## «Euskal literaturak aukera anitzak dituela erakutsi nahi diogu jendeari»

AITZIBER ZAPIAIN INTXAUSTI (H)ILBELTZAKO ANTOLATZAILEA

Euskal Nobela Beltzaren Astea da (H)ilbeltza, Idazleekin Solasean Baztango irakurle taldeak antolatua. «Solosaldiez gain, zerbait gehiago antolatzeko gogoia sortu zitzaigun, eta 2014an hasi ginen elkartzeko. Genero beltzak gugan interes handia zeukan aukera aunitz ematen dituelako; politika soziala, trama handiak, suspensea, alde ilunari begirada... eta konturatu ginen Baztanek lotura handia daukala nobela beltzarekin. Alde batetik, nobela aunitzetan aipatzen da Baztan, eta bertetik, Mariano Izetaren lehen nobela, *Dirua galgarri*, Jose Antonio Loidirekin batera euskarazko lehenbiziko nobela beltza izan zen».

2015ean antolatu zuten lehenbiziko edizioa, eta baita ongi antolatu ere, asteburu motz geldituko zelakoan astebeteko egitaraua prestatu baitzuten. «Antzeko formatua mantendu dugu bederati edizioetan. Nahiz eta asteko egun guzietan ekitaldiak ez egin, jarduera ugari prestatzen ditugu. Lehenbiziko egunean Idazleekin Solasean izaten dugu; autoreak gonbidatzen ditugu eta haien liburuei buruz aritzen gara. Gainera, Izetarena jakitean, *Dirua galgarri* berrargitaratu genuen Baztango Udalarekin batera eta klasikoei egun bat eskaintzea erabaki genuen. Genero beltzak zinemarekin ere erlazioa dauka, eta interesgarria iruditzen zitzaigun zinemari bertze egun bat eskaintzea. Hori mahai-inguruekin, aurkezpenekin, jolasekin, mendi bueltekin... osatu genuen, ekitaldi serioagoak eta ludikoagoak antolatzeko aukera zabalduz. Denok ongi pasatzea zen gure helburua, argi genuelako literatura zaleak ez zirendako ere gune bat zela.



TTIPI-TTAPA

Ez genekien ongi funtzionatu-ko zuen edo ez, baina jende dextente etorri zen eta aunitz gustatu zitzaie, eta gu ere arras eroso sentitu ginen formaturekin. Beraz, nahiz eta berritasunak sartu, formatua arras antzekoa izan da urtero».

Nobela beltzaren erreferentziatzako hitzordua bihurtu da Euskal Herrian, eta jendetza biltzen du urtero Baztanen astebetetz; «klasikoen aurkezpenean, adibidez, aurten Sarrionandia izan dugu eta kopuru-tsuagoa izan da. Asteburuetan jende gehiago biltzen da; larunbatean bazkaria egiten dugu Erratzun eta 80 txartelera mugatu dugu, eta aurtengo Ruper Ordorikaren kontzertuan adibidez, 200 bat lagun izan ziren. Ekitaldi batzuetan bertako jendea biltzen da gehienbat, igande goizeko mendi bueltan adibidez, baina asteburu pasa jende pila etortzen da leku aunitzetatik».

Genero beltza erakargarria da irakurleen artean, «aukera handia ematen duelako kritika sozialerako, landa zein hiri eremuko zikinkeria salatzen. Gainera, arras biziak dira, elkarriketa aunitzekin eta leitzeko errazak. Krimenak eta suspen-

sea beti daude presente eta kontakizunak alde ilunetik, hiltzaile edo galtzailearen ikuspegitik egiten dira aunitzetan eta horrek ikaragarriko jakinmina eta gogoia sortzen du. Arras nobela sinpleak direla dirudi, baina sakontzen hasita gai pila bat lantzen dituztela ikusten da eta normalean kritika soziala eginez».

Euskal eleberrigintzan ere aunitz landu den generoa da; «klasikoetatik hasita, Jose Antonio Loidi, Mariano Izeta, Gotzon Garate, Txomin Peillen, Xabier Gereño, Jon Mirande, Hasier Etxeberria... gaur egunera arte ikaragarria da zenbatak landu duten gaia; Itxaro Borda, Jon Arretxe, Alberto Ladron Arana, Jon Alonso... euskal nobela beltza arras oparoa da, eta aurkezpenetan liburu pila bat izaten ditugu aukeratzeko». Hau ezagutzera ematea da ekimenaren helburua; «Durangoko Azokan zer aurkeztuko den zain egoten gara urtero».

«GENERO BELTZAK  
KRITIKA SOZIALERAKO  
AUKERA HAUNDIA  
EMATEN DU»

Baina liburuak ezagutarazteaz gain, idazmena ere sustatzen dute. «(H)ilbeltza beka antolatzen dugu, urte batez sormenari ematen dioguna eta hurrengoan itzulpenari. Liburu zoragarri piloak daude euskarara itzuli gabe eta gure hizkuntzan leitzeko aukera ematen digu itzulpenak». Taldeak euskaraz bizitzeko duen helburuan, pauso handia da atzeriko liburuak euskaraz leitzeko aukera izatea, «ederra baita zure hizkuntzan irakurtzea».

(H)ilbeltza indartzeko eta ezagutzera emateko erabaki zuten Doinuelerekin saretzea; «jendea ohartzeko ez dela gauza puntuala, Euskal Herrian zirkuitu bat daukagula eta horrelako ekimen aunitz antolatzen direla. Orain (H)ilbeltza momentu onean dago, gogotsu gaude eta jendea etortzen da, baina ahulguneetan heldulekuak izatea arras garrantzitsua da, helburu bera dugun jende aunitz garelako jakitea».

Horrelako ekimenak euskaraz antolatzea ez da beti erraza; «euskaraz bizitzea eta kontsumitzea ez baita erraza. Dirulaguntzak lortzea da zailtasun handiena». Hala ere, «(H)ilbeltza landa eremuan izateak ez digu zailtasunik ekarri. Kontrakoa, errazagoa da udalarekin gauzak antolatzea eta bertze taldeekin egutegi bateratua antolatzea».

Etorkizunera begira, «horrelaxe segitzea» dute helburu. «Hasi ginenean ez genekien urte bat, bi edo hiru izanzen ziren, eta heldu den urtean hamargarren edizioa izanzen dugu. Baina ez daukagu inongo prententsiorik; nazkatzen garen egunean utziko dugu. Gozatzeari uzten badiogu, ez dugu egingo egin behar delako. Gustuko dugulako egiten dugu, eta nik uste hori transmititzen dugula. Ez gara esperoan gelditzen ea guk nahi dugun hori elkartzen diguten, guk sortzen dugu, eta guretzat gozamen bat den heinean, horrela segituko dugu».

## «Mugak hautsi eta ikasleak euskal literaturaren inguruan bildu nahi ditugu»

AMAIA HENNEBUTTE IKUSI MIKUSIKO ANTOLATZAILEA

Euskara hutsezko haur eta gazte literatura azoka da Sara-ko Ikusi Mikusi, «lehen eta bakarra. Haur eta gazteendako euskal literatura oraindik garatzen ari den mundu bat da, eta poliki-poliki ezagutzera ematen ari da Iparraldean. Hau plazaratzeko sortu genuen ekimena». Azoka euskara hutsean izatea hautu bat da, «aunitzetan liburuak bi hizkuntzetan daudelarik, haurrek frantsesez irakurtzen bukatzen dutelako erraztasunagatik, eta hori saihestu nahi dugu».

«Mugaz gaindiko proiektua» da Ikusi Mikusi, «Iparraldeko, Euskadiko eta Nafarroako indarrak elkartuta sortua. Mugak hautsi eta Euskal Herriko ikasleak bildu nahi ditugu euskal haur eta gazte literaturaren inguruan».

Galtzagorri elkarteak abiatu zuen ekimena; «Parisko Montreuil liburuaren azokara joaten gara urtero, aste oso batez haur eta gazte literaturari zuzendua egiten den azoka ikaragarria, eta Euskal Herrian horrelako zerbait egitea pentsatu genuen». Duela hiru urte hasi ziren dena prestatzen, baina pandemia tarteko, bertan behera utzi behar izan zuten. Beraz, 2021ean izan zen lehenbiziko edizioa, 2022an bigarrena, eta aurten hirugarrena izanen dute, urriaren 20an eta 21ean.

Bi egunez egitarau oparora prestatzen dute; ortziralean eskolen eguna eta larunbatean familiena. Liburuez gain «idazleekin topaketak, tailerrak, ikuskizunak, mahai-inguruak... izaten dira, ez da azoka hutsa». Gainera, aurtengo berrikuntza haundia profesionalen eguna izanen da, ortziralean eginen dena; «hainbat erakundeeta-



UTZITAKOA

ko profesionalak bildu nahi ditugu; EHU, EKE, Bilketa, Iparraldeko liburuzainak...».

Eskolen egunaren helburua Euskal Herri osoko ikasleak hurbiltzea da, eta horretarako lan bat eskaintzen diete aurretik; «gai bat botatzen diegu eta nahi duten moduan, taldeka zein banaka, lan bat ekoiztu behar dute, idazlana edo grafikoa. Aurtengo gaia *Zure mugaz gaindiko mundua(k)* da. Lanak gero azokan egoten dira erakusgai, eta oso polita da haurrek haien lanak ikusi nahi izaten dituztelako».

Hala ere, azokaren berezitasunik haundiena haur bakoitzari oparitzen zaion 15 euroko bonoa da, nahi duten liburua eros dezaten. «Oso lotuak gaude ekimen honi biziki potentia baita bi arrazoiengatik. Hasteko, Iparraldeko haur batzuek haien lehenbiziko euskarazko liburua izaten da, familia anitz ez baitaude euskal kulturaren murgilduak. Etxera sartzen dira lehen aldiz euskara hutsean den liburu batekin. Gainera, lehenengo, haurrek dute hautatzen nahi duten liburua. Normalean gurasoak edo irakasleak dira liburuak aukeratzen dituztenak,

baina bono honekin haurrak itzulia egiten du eta gehien erakartzen duen liburua hartzen du. Honek eragin handia dauka haurrengan. Gogoan dut guraso batek kontatutakoa; bere haurra 5 urterekin joan zen lehen azokara eskolarekin eta oraino aipatzen dio Ikusi Mikusi, oraino aipatzen dio Sara eta oraino erakusten dio berak hautatutako liburua».

Azokak «hutsune bat betetzen du», eta horregatik erantzun ona izan du hastapenetik. «Lehen Ikusi Mikusian ez genuen hainbertze jende espero, eskoletatik 900 haur inguru etorri baitziren. Sekulakoa izan zen. Bigarrean 1.300 etorri ziren, eta muga bat paratu behar izan genuen eskola gehiagok izena eman nahi zutelako». Erakunde publikoen aldetik ere, «haurrendako euskal kultura sustatzeko gogoia sortzen ari da. Sara-ko Herriak, adibidez, aunitz laguntzen gaitu».

«EUSKARAZ  
GOZATZEKO ETA  
BIZITZEKO PARADA  
EMAN NAHI DUGU»

Haur literatura «garatuagoa izan da betitik Frantzia, eta ondorioz Iparraldean. Hegoaldean ohituretan sartzen ari da oraino irakasleen eta gurasoen artean». Hala ere, erronka nagusia berdina da euskaldun guzientzako; «haurrek euskaraz irakurtzea lortzen dugu, baina 11-13 urterekin euskaraz irakurtzeari uzten diote, eta frantsesez edo espainolez hasten dira. Gure lana da hau zergatik pasatzen den ikertzea eta konpontzen saiatzea».

Doinuele sortzeko proposamena ailegatzean «buru-belarri» sartu ziren. «Euskara hutsezko azokak eta plazak elkartu ginen eta konturatu ginen ez garela hainbertze. Beti burutan dugu Durangoko Azoka, baina ez da euskara hutsean. Hau ez dago gaizki, baina guk eguna euskaraz pasatzeko, bizitzeko eta gozatzeko parada eman nahi dugu. Sarearen bitartez ezagutzera eman ahal ditugu gure ekimenak, eta urrunago ailegatuko gara. Gainera, bakarrak ez garela jakiteak on egiten du, eta sarearekin auzolanean aritu gaitzke. Hurretarako, gure aurtengo helburua azoka guzietara joatea da, ikusteko, ezagutzeko eta ideiak trukatzeko. Ondoko etapa elkar laguntzea izanen da».

Euskararen aldeko ekimenak antolatzeke, «gogoia, indarra eta erokeria puntu bat izatea beharrezkoa da. Fede haundia behar da horrelako ekimen bat muntatzeko, laguntzarik ukanen dugun edo ez jakin gabe. Lan ikaragarria da, baina balio duen lana. Orain ohartu gara laguntza heldu dela, jendea eta erakunde publikoak gogotsu direla».

Etorkizunera begira, «gure asmoa euskal kulturaren ezinbesteko hitzordua bilakatzea da. Jendeak argi izatea zer den, eta ahal badute, hurbiltzea. Ekimen biziki ederra da eta urte aunitzez irautea nahiko guke».

## Bestetako egitarauaren azal lehiaketa martxan

Maiatzaren 31 izanen da lanak aurkezteko azken eguna, eta egile bakoitzak nahi bezainbetez lan aurkezten ahal ditu

### TTIPI-TTAPA

Kultur Batzordeak Berako bestetako egitarauaren azal lehiaketa antolatuta du aurten ere. Aurkeztutako lanek Berako bestetako giroa islatu beharko dute, eta azalean *Berako Bestak 2023* testua agertu beharko da nahitaez, gainera, ezin izanen du bertzelako testurik eraman.

Aurkeztutako argazkiak edo irudiak kolorezkoak izanen dira, ez da diapositibarik onartuko, paperean aurkeztu beharko dira, eta bertikala izanen da, 18x27 zentimetrokoa. Euskarri gogor batean aurkeztu beharko dira eta egoki paketatuta.

Estiloari dagokionez, teknika librea izanen da, betiere bestetako giroa islatzen badu. Lanek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute, ezin dira izan bertze lehiaketetan aurkeztutako lanak ez eta bertze lan batzuen kopia edo plagioak aurkeztu, ezta bertze artista batenak ere.

Saridunari dagokionez, Bera Hurbil aplikazioan egindako

herri bozketaren bidez erabakiko da zein izanen den irabazlea. Lan saridunaren jabea Berako Udala izanen da eta bere iragarpen, argitalpen, zabalkunde eta abarren eskubide guztiak altxatuko ditu beretzat eta horietan lan saridunaren izena emanen dute. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du.

### Maiatzaren 31 azken eguna

Lanak aurkezteari dagokionez, maiatzaren 31ko 13:30ak baino lehen aurkeztu beharko dira Herriko etxeko bulegoan. Aurkeztutako lanaren gibelean goitizen bat baino ez da paratuko –egilearen izena agertutako lanak ez dira onartuko–, eta aparteko gutun-azal batean erantsiko dira egilearen datuak, kanpoko aldean goitizena paratuz. Gutun-azalaren barrenean datu hauek agertu beharko dira derrigorrez: izen-abizenak, adina, helbidea (karrika, etorbidea, plaza, etab. zenbakia eta solairua; posta kodea, herria eta probintzia), telefonoa eta posta elektronikoa.

## Dokumentala eta irteera hilaren 21ean eta 22an

Hilabeteko hirugarren aste-bururako hitzordu bikoitza antolatu du Agerra Mendi Taldeak. Larunbatean, 18:00etan *21 motius per caminard* dokumentala emanen dute 18:00etan Beralandetan. Bihamunean, aldiz, GR-11ko Bera eta Elizondo arteko etapa egingen dute. 06:30ean paratu dute hitzordua elkartearen ondorengo bazkaria izanen dute Elizondon. Izena ematea beharrezkoa izanen da 647 29 61 04 zenbakian. Ondotik, linea-ko autobusean itzuliko dira Berara.

## Aurte ereazienda feria egingen dute apirilaren 29an

Herriko ganaduzaleek udalarekin batera antolatuta, seigarrenez azienda feria egingen dute apirilaren 29an. Goizean goizetik herriko ganaduzaleek beren aziendak paratuko dituzte ikusgai Toki Onako patioan, eta horiekin batera artisauen postuak ere izanen dira. Omenaldia eta erakustaldia ere izanen dira goizean, eta baita zaldian ibiltzeko aukera ere.

Parte hartzaileek goizean gosaria izanen dute, eta eguerdian bazkaria emanen die udalak.



GURE TXOKOA DANTZA TALDEA

## Dantzari ttikiak Zaldibian eta Añorgan

Otsailean hasi zituzten entseguak Gure Txokoa Dantza Taldeko dantzariak, eta dagoeneko ttikienak kanpoan ibili dira dantza. Zaldibiako eta Añorgako dantzari ttikietan izan dira, eta maiatzean Lezora ere joanen dira. Ondotik, ekainean egingen dute Berakoa.

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**Ainhoa Alzuguren Mitxelena**  
Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Arazo administratiboak  
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko  
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

**AUZOA BERA**  
Pintxoak, ogitarteak, plater konbinatuak,  
eguneko menua, asteburuko menua, ...  
Terraza zerbitzua  
Ileketa 11 - BERA  
T. 648 020 625

# 25 zuhaitz landatu dituzte Bidasoa karrikan

Eremu urbanoetarako egokiak diren gerezi japoniarrak eta pago-lizarrak landatu dituzte

## TTIPI-TTAPA

Berako Udalak, ASPACEKO loreraintzako zerbitzuarekin elkarlanean, 25 zuhaitz landatu ditu Bidasoa Karrikan estazioko zubiraino. Orain dela urte gutti eremu honetan ur eta argi sareak eta espaloia berritu zituzten eta orain zuhaitzen txanda izan da.

Bi motatako zuhaitzak landatu dituzte: *Prunus Serrulata Amanogawa*, edo gerezi japoniar apaingarria; eta xarma arruntak edo pago-lizarrak.

Zuhaitz mota hauek hagitzen ongi egokitzen dira eremu urbano honetara, eta egokiak dira espaloietan eta errepede ondoan jartzeko, batez ere handitzean hartzen duten formarengatik. Zuhaitzek oinarrian ur drainatze-sistema berezia dute, hoditeria eta legar geruza berezi batekin.



Erretako udareondoa loretan.

Aireztatzea ere laguntzen du sistema honek.

## Udareondoa erreta

Lizuniaga eta Kondendiaga artean dagoen 130 urte baino gehiagoko udareondoa erre dute. Momentu natural izendatu zuten zuhaitza duela urte batzuk. Otsailaren 26an erre zuten, nahita piztutako sute baten ondorioz. Udaberriekin batera beriz ere loratu da, sendatze bidean den seinale.

# Euskal presoek lagunak hilabeteko azken ortziraletan elkartuko dira

## TTIPI-TTAPA

1990ean hasita, ortziraletan elkartu dira Mukixu zubian Berako euskal preso eta errepre-saliatuen lagunak *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean. TTIPI-TTAPAri bidalitako oharrean jakinarazi dutenez, hemendik aitzinera hilabete-

roko azken ortziraletan bilduko dira *Etxera* lelotzat hartuta. Urte hauetan ekimenarekin bat egin dutenak eskertu nahi izan dituzte: «borroka ez da bukatu eta aitzinera segitu behar dugu euskal preso politikoak, deportatuak eta iheslariak etxean izan arte».



GURE TXOKOAK

# Ohorezko mailara igo dira jubenilak

Gure Txokoako jubenilen futbol taldeak lehen aldiz Gipuzkoako ohorezko mailara igotzea lortu du. Apirilaren 1ean, liga bukatzeko bortz partida falta zirela lortu zuten igoera futbolariak Astigarragaren kontra 7 eta 0 irabazi ondotik. Zorionak!

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

**BIDASOA**  
GASOLIOA ETXERA eramaten dugu  
Gurepik eskaintze bereziak  
24h-ko asistentziak errepideetan  
147 euruko zerbitzu dohaiak  
Gasolindegiek 24h irekita

Alkaga Industrialdea  
Ziobi Kalea 4  
31776 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialdea  
Y Kalea 10  
31110 Noain (Nafarroa)

**IGONE**  
LIBURU-DENDA  
PAPER-DENDA  
JOSTAILU-DENDA  
MARGO-DENDA  
Kanttonberri, 4 BERA  
Telefonoa eta 948 630 626  
papateriaigone@gmail.com


Apirilaren 23an  
Liburuaren eguna  
Apirilaren 17tik 22ra  
%10eko deskontua  
liburuetan

**Eskaintza eta promozio gehiago dendan**  
1977tik  
zuen zerbitzura

**JAIONE-GOXOTEGIA**  
Etxean  
egindako  
produktuak  
948 630 786 • Alizate, 21 • BERA

Astirenetatik  
ortziraletan:  
07:15etik  
aitzinerara  
Larunbata  
eta igandak:  
08:00etatik  
aitzinerara  
948 631 076 • BERA

**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
Zalain Ind., 42 Bera.  
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65



Herritarren Arreta Bulegoa lanean hasia da udaletxearen beheitian. UTZITAKOA

## Hainbat lanetarako dirulaguntza eskatu du udalak

Horietatik handienak Bittiria eta Albistur karriketako sareak hobetu eta zolaberritzeko lanak lirateke

### AITOR AROTZENA

Herrian hainbat lan egiteko dirulaguntza eskaria egin du Lesakako udalak, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazio Departamentuak kudeatzen duen Toki Inbertsio Planaren barrenean.

Honela, ur kontadore berriak eta telegestioa; Alkaia gako

saneamendu lanak; Zarandia karrikan Ziobitik goiti doan malda eta Beheko Plazatik Zabaleta dorre alderako biderearen zolaberritzea, Bittiria karrikan espaloiak hobetu eta saneamendu, euri-urak eta ur-hornidura sareen hobetzea (Euskadiko Kutxatik Atxaspira bitarteko zatian); Albistur

karrikan, Legarbaratzetik Ziobiraino espaloiak hobetu eta saneamendu, euri-urak eta ur-hornidura sareak hobetu; baserrietako bideak (Sastrin, Peuran eta iriburuta), Herriko Etxeko leihoak moldatu; Eskolttikiko obrak (igogailua paratu eta efizientzia energetikoaren hobekuntza lanak) eta autokarabanentzat eremua egitea dira udalaren asmoak. Orain ikusi beharko da zein lanetarako eta zenbateko dirulaguntza lortzen duen udalak.

### Argiteria aldatzea

Bertze alde batetik, herriko argiteria guztia aldatzeko dirulaguntza ere hartu du udalak. Lanaren aurrekontu osoa 264.177,62 eurokoa da eta eta hauetatik 224.550,98 euro IDAEko dirulaguntzen bidez lortu da. Egin beharreko lanen zati bat dagoeneko egin dago eta horretarako ere dirulaguntza izan da.

### Herritarren Arreta Bulegoa

Herriko Etxearen beheitiko solairuan Herritarren Arreta Bulegoa paratu dute. Udal bulegoen ordutegi berean irekiko dute (07:30-15:30) eta bi udal langile ariko dira.

## San Fermin elkarteak Gesaltza Añanara irteera

San Fermin erretiratuen elkarteak Arabako Gesaltza Añanara bidaia antolatu du apirilaren 27an. Ortzegunean 08:30ean abiatu eta Idiazabal gazta dastaketa egingen dute eta gero bazkaria Gesaltza jatetxean. Bazkalondoan gesaltzen bisita gidatua egingen dute. Txartelak apirilaren 22ra arte eskura daitezke jubilatuen ostatuan, 36 euroren truke (bazkide ez direnek 40 euro). Bertetik, ipar martxa ikastaroaren jarraipena izanen dute hilaren 21ean, ortziralegoz Harriondoan.

## Arkupe pilotazale elkarteak ireki eta itxiko du frontoia

Herriko Etxeak eta Arkupe pilotazale elkarteak hitzarmena sinatu dute eta horren ondorioz, elkartea arduratuko udal pilotalekua egunero ireki eta itxteaz (09:00-21:00). Argia erabili behar duenak, kiroldegian eskatu beharko du giltza, orain arte bezala.

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KOMBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika - BERA  
zubiondojatetxea.com

**LIDERA**  
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Hturrumbiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)  
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklínika.es  
@liderahortzklínika

**KAGU LIBURUDENDA**  
Tel./ Fax: 948 638 232

Apirilak 23  
liburuzaren egunean  
**7.10** eko **DESKONTUA**  
liburuzan

**LINDURRENBORDA SAGARDOTEGIA**

**Txotx denboraldia irekia!**  
Ortzegunetik igandera irekita,  
eguerditik aitzinera.

**Egin erreserba!!**

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) - TEL. 948 63 72 12



# Kultur ekitaldiz ongi hornitutako apiril hondarra dator

Azken asteburuan Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, dantza garaikide emanaldia eta Neomak musika taldea izanen dira

## A. AROTZENA

Kultur ekitaldiz ongi hornitua dator apiril hondarra. Haste-ko, **hilaren 20an**, ortzegunean 17:30ean Sorgina Txirulina ipuin kontalaria izanen da liburutegian, *HunkIpuinak: emozioei buruzko istorioak* saioarekin. **Apirilaren 22an**, larunbatean, Xulubest! Eguna antolatu du Xulufriak Lesakako Sare Feministak (ikus egitaraua 827. zk) eta egun berean Hauraren Eguna izanen da, Iraingo eta Tantrumairuko guraso elkarteen eskutik. 16:30etik 19:30era

jokoak eta merienda izanen dute Eltzeta Plazan. **Apirilaren 27an**, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa kontzertua emanen du Harriondoan. **Hilaren 29an**, larunbat goizean Merkatu Ttikia izanen da Beheko Plazan eta arratsaldean, 19:00etan Harriondoan, DNA Jaialdiaren barrenean NIK-EU dantza garaikide emanaldia. **Hilaren 30ean**, azkenik, igandean 19:00etan, Neomak musika taldearen emanaldia izanen da Harriondoan, Hamar urte Hamaika Dinamika proiektuaren barrenean.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Goiuri Urra garaile bere lehen proban

Goiuri Urra Yecora, 14 urteko moto gidariak ezin hobe hasi du bere ibilbidea moto-kros karreratan. Apirilaren 2an bere lehen *cross-country* proba jokatu zuen Uxuen, Nafarroako txapelketarako baliagarria eta garaile suertatu zen kadetetan. Maila handiko pilotuekin lehiatu zuen, zirkuitu zail batean.



**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicidad  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

**Jatetxe eta ostatuak**  
Menuak, kartak, mahai-oihalak...  
Hainbat material erabat pertsonalizatuta



**MUGARKI**  
ROKODROMOA ETA GIMNASIOA



622 90 30 55 • [kaixo@mugarki.com](mailto:kaixo@mugarki.com) • [@mugarki\\_](https://www.instagram.com/mugarki_)  
Ordoki poligonoa. ARIZKUN

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



**IBARGOYEN**  
SUMINISTROS CARROCEROS





[www.ibargoyen.net](http://www.ibargoyen.net) ☎ 943 616 587  
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

## V. Mendi itzulirako prestaketa lanetan ari da Altxata

Maiatzaren 6an egingen den proban ibilbide luzearen eta laburraren artean aukera daiteke

### IRUNE ELIZAGOIEN

Lau urteko geldialdiaren ondoren, bueltan da Altxata elkartek antolatutako Etxalar-ko Mendi itzulia. Aurtengoa, bosgarren edizioa izanen da eta maiatzaren 6an egingen da. Mendi itzuli honetan, ohi bezala, bi ibilbide emanen dituzte aukeran (ibilbide motza, 24,2 kilometro luze eta 1.510 metroko desnibelarekin eta ibilbide luzea 28,2 kilometro luze eta 1.725 metroko desnibelarekin). Biak plazan hasi eta bukatuko dira. Luzean, Altxata, Zamateluko mendi,

Eskisaroi, Etxebertzeko borda, Domiko gaina, Iturraldeko erreka, Paretazar, Azkua eta Larrezabalen barna ibiliko dira, plazara bueltatu aitzinetik. Motzean, berriz, Altxatetik Etxebertzeko bordara joanen dira zuzenean, ibilbidea lau kilometro laburtuz.

Irteera larunbatean 07:30etik 08:00etara izanen da plazatik. Izen-ematea idekia dago [inscripciones.nafarmendi.org](http://inscripciones.nafarmendi.org) helbidean eta egunean bertan ere, 06:30etik 07:45era arte plazan egiteko aukera eskainiko da, 15 euroren truke.

## Xabier Gallardon ederki ari da moto lasterketan

Martxoaren 25 eta 26an Espainiako Hard Enduro txapelketan parte hartu zuen Xabier Gallardonek. Apirilaren 2an, berriz, Uxuen izan zen Nafarroako txapelketako Cross Country lasterketa eta bertan hirugarren postua lortu zuen. Zorionak!



Gallardon hirugarren Uxuen. I.GALLARDON



ANA INDABURU

## Martxoaren 25ean sutea

Martxoko hondarreko astean, norbaitek hiru aldiz segidan (hiru egunez) eman zion su larreari Olako bordako bizkarretik hasi eta Irazako gaineraino, Zugarramurdiko bidean ezkeraldera. Zorionez erretako larrean ez zegoen plantaziorik, baina bai berez sortutako haritz plantak.

## Sendabelar ikastaroak Larraburuan

Laura Gurbindoren eskutik, sendabelar ikastaroa izanen da Larraburuan, udalak lagunduta. Bi mailako ikastaroak eskainiko dira (biak 32 ordukoak). Lehenengo mailakoa, apirilaren 22, 29, maiatzaren 6, 13, 20, 27, ekainaren 10 eta 17an izanen da (09:00-13:00). Herritarrentzat 80 euro kostako da eta gainerakoentzat 165 euro. Bigarren maila sakontzeko izanen da, eta apirilaren 19, 26, maiatzaren 3, 10, 17, 24, ekainaren 7 eta 14an (16:00-20:00). Apuntatzeko deitu udalera (948 63 50 05).

## Aste Santuan 152 lagun pasa dira Turismo Bulegotik

Aste Santuko ortzegunetik astelehenera 152 lagun pasa dira Turismo Bulegotik. Gehienak gipuzkoarrak izan dira, eta baita Nafarroa, Bartzelona, Valentzia eta Zaragozatik etorritako bisitariak ere. Gehienek herriari buruzko informazioa eta elizako hilarriei buruzkoa galdetu dute. Usategiak ere interesatu zaizkie. Eguraldi ederra egin duenez, inguruan ibilaldiak egiteko informazioa ere eskatu dute. Bisita gidatuak ere egin dituzte, herriaren historia eta bizimodua kontatuz.

 **USOA**  
Nekazari kooperatiba



T. 948 635 214 M. 605 631 244  
ETXALAR

 **Jauzena**

Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jauzenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa  
eta dirulaguntzen gestioa



 **PRIM, c.b.**  
Fisioterapia Zentroa

 **K-STRETCH**

*Etorri eta probatu debalde!*

San Esteban, 17 • T/F. 948 625 206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN

 Centro Prim  regina.tolosaechebare

## Euskara piztu asmoz egitarau zabalarekin dator Borborraldia

'Euskararen udaberria piztu' goiburuean antolatu du Bor-Bor Euskaltzaleen Mugimenduak apirilaren 19tik maiatzaren 6ra

### TTIPI-TTAPA

**Apirilaren 19an** *Euskara herrera hizkuntza* formakuntza-saioa emanen du Amelia Barquin Mondragon Unibertsitateko irakasleak Berako Beralandetan, 18:00etatik 20:00etara.

**Apirilaren 22tik maiatzaren 6ra** bitarte, berriz, *Euskara lantokietan piztu* erakusketa ibiltaria ibiliko da bortz herrietan barna (apirilaren 22an eta 23an Lesakan, 28an Arantzán, 29an Igantzín, 30ean Etxalarren eta maiatzaren 5ean eta 6an Beran).

*Gurasoekin topaketak* eginen dira Bortzirietako ikastetxeetan **apirilaren 24tik 28ra**. Gurasoak sentiberatzeko gogoeta-saioak izanen dira. **Maiatzaren 4an**, berriz, UEMAK saio bana emanen du guraso euskaldunentzat (17:00etan)

eta erdaldunentzat (19:00etan) Lesakan.

Bortzirietako Gazte Euskaltzaleen Topaketa eginen da Igantzín, **apirilaren 29an**. 15:00etan hasita, jokoakeginen dituzte; 19:00etan, elkarretaratzea eginen da Euskal Herrian Euskaraz abiatutako mobilizazio-kanpainaren barrenean, eta *Bada garaia, Euskara ofiziala, eta kitto!* izanen da leloa. Afari musikatu batekin bukatuko dute eguna.

**Maiatzaren 6an** emanen diote akabera Borborraldiari, Beran eginen den bestarekin. Egun horretarako, Euskaltzaleen Topaguneak Bidasoko Euskara eta Kultura Azoka antolatu du, eta horren testuinguruan eginen ditu Bor-borrek bere ekitaldiak. Goizean Bor-borren batzarra eginen da, 11:30etik aitzinera.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Zahar etxeetan euskara ikastaroa

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak oinarritzko euskara ikastaroa egin du, Lesakako Andra Mari eta Berako San Jose egoitzetako langileei zuzendua, Lorea Goienetxe Lizartzaren eskutik. Hamabi zaintzailek parte hartu dute eta eguneroko lanean adierazpenak eta esaldiak euskaraz erraten ikasi dute.

## Lan Gauaren zortzigarren edizioa Etxalarren eginen dute apirilaren 22an

### TTIPI-TTAPA

Bidasoko Kontrabandistak elkarteak antolatutako Lan Gauaren zortzigarren edizioa Etxalarko bidezidorretatik eginen dute apirilaren 22an. Hitzordua 1arunbatean 19:30ean izanen dute Etxalar-ko Bentan eta ordubete be-

randuago abiatuko dira. Mizpiralepo, Meaka, Etxalar eta Santakruz igaroko dituzte (11,5 km luze eta 400 metroko desnibela). Informazio gehiago eta izen-ematea Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteko 948 59 23 23 telefonoan edo [info@baztan-bidasoa.com](mailto:info@baztan-bidasoa.com).



**2023-2024 ikasturtea**

**LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK D EREDUAN (EUSKARAZ)**

**TOKI ONA BHI BERA**

**MEKATRONIKA INDUSTRIALA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**

**MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**

**IZEN EMATEA: APIRILAREN 24tik MAIATZAREN 5era**

**Telefonoa: 848 431 710**

[tokionabhi.web.educacion.navarra.es](http://tokionabhi.web.educacion.navarra.es)

[iesbera@educacion.navarra.es](mailto:iesbera@educacion.navarra.es)







## Ongi aparkatzeko kanpaina egunotan abiatuko da

Udalak Foruzaingoarekin batera eginen duen kanpainaren ondotik arauak betetzen segitzen ez dutenak salatuko dituzte

### ANA ETA ITZIAR

Apirilaren 20tik aitzinera, eta hiru astez, informazio-kanpaina hasiko du Igantziko Udalak, Foruzaingoaren laguntzarekin. Helburu nagusia: ibilgailu motordunen aparkamendua baimenduta ez dagoen guneak errespetatu daitezela eta horretarako prestatutako espazioak erabili daitezela.

Informazio-kanpaina bukatu ondotik, arauak bete gabe segitzen dutenak salatuak izanen direla jakinarazi dute. Une jakin batean sor dezaketen deserosotasuna ulertzen

dute, «baina segurtasun, irisgarritasun eta arduraren ikuspegitik guztioi sortzen digun onura handiagoa dela uste dugu». Bukatzeko, udaletik eskerrak eman nahi dizkiete guztion onerako arauak errespetatzen dituztenei.

### Mus txapelketa azkarra

Martxoaren 31n jokaturako mus-tximista edo mus txapelketa azkarrean, oraingo irabazleak Anuntxi Txoperena eta Axun Iribarren izan ziren eta bigarren, berriz, Morfi Hita eta Daniel Mitxeo.

## Gazte euskaltzaleen topaketa Igantzin eginen dute apirilaren 29an

### ANA ETA ITZIAR

Borborraldiaren barrenean, apirilaren 29an Bor-bor taldeak antolatutako Gazte Euskaltzaleen topaketa dela eta, hainbat ekitaldi eginen dituzte herrian. Horrela, larunbatean 15:00etan, bortz herrien arteko desafio izanen da frontoian; toka,

koxxor biltzea, mihiluze... 19:00etan elkarretaratzea *Bada garaia, Euskara ofiziala, eta kitto!* goiburupean. 21:30ean: afari musikatua Baratzondo Elkartearen Maddi eta Elenerekin.

Animatu gaitezten euskararen alde!



UTZITAKO ARGAZKIA

## Eskolan Joko Topaketa

Urtero, Igantzi, Arantza eta Etxalarko eskolek egiten duten joko topaketa, Igantziko eskolari egokitu zaio aurten. Goizetik hasi eta Arantza eta Etxalarko haurrei harrera egin ondotik taldetan banatuta jokoetan aritu ziren. Eguraldia lagun, goiz ederra pasatzeko aukera izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Herri Kirol Jokoetan bikain

Euria zela eta herrian ez, baina Sunbillan egin zen Nafarroako Herri Kirol Jokoen azken saioa. Proba konbinatuan, herriko taldea hirugarren izan zen infantil mailan (argazkian) eta kadete mailan txapeldun (kirol orrietan). Biltokin 80 lagun bildu ziren mahaiaren bueltan.



**endanea**  
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10  
[www.endanea.com](http://www.endanea.com)

Online denda

## UDABERRIA ENDANEAN

Zatoz zure txoko kutunenak txukuntzeko behar duzun guztia bilatu.

- Sasoko lore eta zuhaitzak.
- Lorezaintzarako osagarriak.
- Baratzerako landareak eta haziak.
- Altzariak eta dekorazioak.



# Dena prest igandean mendi lasterketa egiteko

Aurten laugarren aldiz egingen duten lasterketa 09:30ean hasiko da plazatik

## NEREA ALZURI

Jakina den bezala, igande honetan, apirilaren 23an, IV. Mendi Lasterketa izanen da. 20 kilometroko distantzia eta 1.300 metro dituen lasterketa 09:30ean hasiko da. Lasterkariak plazatik abiatuko dira eta Zepuru, Illurdi, Ekaitza, Ibintza eta Oilargatatik pasatu ondok Arruzpira jautsiko dira berriz herrira igo aitzinetik.

Bidean lau anoa-postu izanen dituzte: Zepurun edatekoa eta Ekaitzan, Oilargatan eta helmugan jatekoa eta edatekoa. Helmugara ailegatzeko gehie-

nezko denbora hiru ordu eta 15 minutu izanen da. Lehenbiziko hiru postuetan ailegatzeko diren emakumezkoek eta gizonzkoek saria izanen dute, eta horrez gain, Ekaitzako kaskotik pasatzen den Bortzirietako lehenbiziko lasterkariak Xabier Zubieta Saria hartuko du.

Data ganean da eta azken txanpa izanik, Ekaitza Elkarteak hainbat lanetan ari dira, hitzorduak aitzinetik hainbat lan egitea eskatzen baitu. Egunean bertan ere, herritar aunitz ariko dira mendi gainetan nahiz beheitirago, herrian, laguntzen.

## Arantza Bizirik taldea sortu dute parke eolikoaren proiektuarekin kezkatuta

### N. ALZURI

Madrilgo Zelena Renovable enpresak Arantzako, Igantziko, Sunbillako eta Etxalarko lurretan egin nahi duen Azkua izeneko parke eolikoaren berri izan dutenetik, mugitzen ari dira herritarrak. Gaiak ezinegona sortu du eta bi batzar egin

ondotik, taldea ere sortu dute: Arantza Bizirik. Garbi dute «proiektuak herriari ez diola deus onik ekarriko». Apirilaren 14an egitekoa zuten bertze hitzordua. Lesakako Endara Bizirik plataformakoekin eta Sustrai Erakuntza fundaziokoekin solasaldia egitekoa zuten.

## Literatura Geraldia apirilaren 27an Nerea Ibarzabalen 'Bar Gloria' liburuari buruz

### N. ALZURI

Aurten ere, Literatura Geraldia egitasmoak geldialdia egingen du herrian. Euskaraz leitzeko ohitura eta zaletasuna sustatzea, euskal kultur kontsumoa eta liburugintza indartzea eta bidenabar, esperientzia literarioak partekatu eta liburutegien erabilera bultzatzea ditu helburu Literatura Geraldia.

Apirilaren 27an, 17:00etan liburutegian, Nerea Ibarzabal Salegiren *Bar Gloria* eleberriaz aritzeko aukera izanen da. Nerea bera ere bertan izanen da. Mamiari dagokionez, iragan



Nerea Ibarzabal Arantzara etorriko da.

hurbil baten hitzezko filmatze bat da *Bar Gloria*. Egunaren zurrunbiloa noiz apalduko daude Ana, Rakel eta Migel, patxaran gozotan hirurei eusten dien sarea ehuntzen segitzeko.



LEIRE MITXELENA

## Jakoba Errekondoren solasaldi jendetsua

Joan den apirilaren 1ean, Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista ezagunak bisita egin zuen. Bere azalpenek interesa piztu zuten hurbildu ziren lagunen artean. Baratzeei, loreei eta landareei buruz bere jakintza partekatu zuen Errekondok eta gustura pasatu zuten arratsaldea.

**BILTEGIA: 948 630 102**  
**SAKELAKOA: 633 480 563**  
 Bidaxoa, 76 - atea 21-22 • BERA

TTPI-TTAPA SARE SOZIALETAN  
  
 facebook  
[www.facebook.com/ttpttapa](http://www.facebook.com/ttpttapa)

**Bertso afaria**  
 OLA SAGARDOTEGIEN (IRUN) (+34) 943 623 130  
**Apirilak 29 Larunbata, 20:30tan**  
**BERTSOLARIAK**  
 Egaña, Mendiluze, Lizaso  
**GAIJARTZAILEA**  
 Peñagarikano  
 Sagardotegi menua,  
 kafea eta kopa  
**45€**

• INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
 • PROIEKTU ELEKTRIKOAK  
 • BOLETIN INDUSTRIA  
 • INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
**T. (0034) 636 617 450**  
 Legia, 23 - BERA



Prozesioa Ortzirale Santu egunean. MAIDER PETRIRENA

## Aste Santuko ohiturak zuzen bete dira aurten ere

Aste osoan egin zuen eguraldi ederra lagun, Ortzirale Santu egunean prozesioa egin zen herrian barrena

### MAIDER PETRIRENA

Eguraldi ederraz gain, herrian mugimendu izugarria sumatu da Aste Santuan. Ohiturari jarraituz, ortziralean prozesioa egin zen. Goizean kuadrilla eder bat pausuak muntatzera elkartu zen eta arratsaldean beriz, prozesioan, pausuak eramatera. Eskerrak eman lan hauetan parte hartzen dutenei.



Tikiiek parte hartu zuten. N.GARTZIA

### Udako ludoteka

Udako ludoteka prestatzen hasi da eskolako guraso elkarteak. Monitore bezala aurkeztu nahi duenak, e-Posta bidali behar du [apymasunbi-lla@gmail.com](mailto:apymasunbi-lla@gmail.com) helbidera zen abizenak, adina eta telefonoa zehaztuz. Monitoreek 16 urte beteak izan behar dituzte eta apuntatzeko epea apirilaren 27an akituko da.



NAFARROAKO FUTBOL FEDERAZIOA

## Lukas Ezkurra Nafarroako selekzioarekin

Doneztebe Futbol Taldean jokatzen duen Lukas Ezkurra Arretxea herritarrak (argazkian belauniko, erdiko jokalaria), Nafarroako hamabi urtez beheko futbol selekzioarekin Euskadiren kontra partida jokatu zuen, baita irabazi ere. Zorionak Lukas!



ESKOLAK UTZITAKOA

## Ikasleak English Week-en

Eskolako egunerokotasunetik at martxoaren 20tik 24ra, LHko 5. eta 6. mailako ikasleak English Week-en egon ziren Lekarozko egoitzan. Pandemiaren ondorioz, ekintza hau eskolan egiten hasi ziren, baina aurten, pandemiaren ondotik lehen aldiz, Lekarozera joateko aukera izan dute.



**Miguelena**  
SUKALDEAK

Ebretresnak  
Pareta-armairuak  
Sukalde eta bainugelako altzariak



☎ 948 450 925 ☎ 624 47 57 25  
Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

[www.electrodomesticosmiguelena.com](http://www.electrodomesticosmiguelena.com)



**Zelain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria  
astelehenetik ortziralerara



Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. [www.zelain.info](http://www.zelain.info)



**Lizun**  
GAZTANDEGIA



IDIAZABAL

Sunbilla - Tel: 948 450 862

## Erretiratuen herri kirol eta soinketa eguna hilaren 27an

Bazkideen kirol saioaz gain, aurten berrikuntza modura herri kirol erakustaldia ere egingen dute

### TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteak urteroko zita garrantzitsua du herrian hilaren 27an, soinketa eta herri kirol eguna. Aurten, gainera, hainbat berrikuntza izanen dituzte, bazkideen kirol saioaz gain, herri kirol erakustaldia ere izanen baitute. Goizean, nork bere herrian hartuko du autobusa Doneztebera joateko. Bertan, 11:00etan elkartuko dira eta soinketa erakustaldia egingen dute kiroldegian.

Ondotik, 12:00etan aurten-go berrikuntza nagusia izanen

dute, herri kirol erakustaldia Cañamares anaien eskutik. Aizkoran ariko dira lehenik, eta ondotik baita trontzan ere.

### Otordua Santamarian

Herri kirol erakustaldia bukatuta, kiroldegitik atera eta bazkaria izanen dute Santamaria jatetxean 14:00etan. Tripa bete ondotik, eguna akitzeko 17:00etan Jose Angelekin dantzaldia izanen dute eta 19:00etan etxera itzultzeko autobusa hartuko dute.

## 300 lagunetik goiti elkartu ziren Nafarroako euste zakurraren egunean

### TTIPI-TTAPA

Apirilaren 9an Nafarroako euste zakurraren 31. urteurrena ospatu zuten Donezteben. 300 pertsona inguru bildu ziren Gipuzkoatik, Bizkaitik, Arabatik, Kataluniatik, Salamankatik, Errioxatik eta batez ere Nafarroatik etorritakoak.

Goizean hainbat jardura egin zituzten: herri kirolen erakustaldia, aizkora, harri jasotzea... Hala ere, eguneko momenturik hunkigarriena omenaldia izan zen. Maitasun bereziz, omenaldia egin zioten berriki hil den Egoitz Albizuri elkarteko bazkide eta lagunari. Bere omenez plaka bat paratu zuten, bere zakurra ondoan zela eta gutun bat leitu zioten eta hainbat musika pieza jo zituzten. Azkenik, bazkari herrikoia



Euste zakurrak herrian.

izan zuten Santamaria jatetxean ekitaldira hurbildu ziren pertsona guztiekin.

1992an basurdeak ehizatzeke nahiarekin, nafar euste arraza bat hautatzen hasi ziren. Talde horretan zen Luis Martin herritarra, eta geroztik Nafarroako euste zakurraren promozioaz arduratzen den SAPn elkartarekin harremana du herriak. Aitzinetik ere ekitaldiak egin izan dituzte.

## Txikizioak egin dituzte eskolako parkean

Udalak salatu du eskolako haur parkeko kortxoak tokitik kendu eta leihotara bota dituztela. «Hau da gaztetxo batzuek eskolako eta herriko umeei eta Doneztebeko herriari egingen dioten oparia».



DONEZTEBEKO UDALA

## Modu egonkorrean pediatra lortu dute Osasun Zentroan

Martxoaren 30az geroztik, Iosu Perez Aranburu da Doneztebeko Osasun Zentroko pediatra, eta beraz, Malerreka eta Bertizaranako haurrak artatuko dituen. Modu jarraituan eta egonkorrean beteko du pediatraren lanpostua.

# SOLAR

# TRES60

Eguzki energiaren instalazioen espezialistak gara.

Energia fotovoltaiakoko eta energia eraginkortasuneko lanak egiten ditugu profesional talde kualifikatuarekin

DIRULAGUNTZAK

FINANTZIAZIAZIOA

KONPENTSAZIOA

MONITORIZAZIOA

GARANTIAK

ZERBITZU TEKNIKOA

☎ 644 60 18 78 ✉ info@solartres60.com

📍 Poligono industrial La Barrera, C. Canal de Navarra. TUTERA



Osasunak irabazi zuen Azpeitia Cup txapelketa, Aioroa tartean zela. UTZITAKOA

## Aloña Aioroa Osasunarekin txapeldun Azpeitian

Doneztebe Futbol Taldean ari da infantil mailan, baina Iruñeko taldearekin aritu da Aste Santuko Azpeitia Cup torneoan

### ARKAITZ MINDEGIA

Aloña Aioroa herriko bertze gaztetxoekin batera Doneztebe Futbol Taldeko infantil mailan aritzen da. Gustuko kirola izateaz aparte maila bikaina ematen ari da. Horren erakusgarri da Osasuna taldearen infantil taldearekin entrenatzera joateaz aparte, partidak jokatzen ere dabilela. Berriki, Aste Santuko oporraldian, apirilaren 7an, 8an eta 9an jokaturako Azpeitia Cup torneoan parte hartu zuen.

Torneoan hamasei taldek parte hartu zuten eta Osasunako taldea txapelduna izan

zen, Madrid FCC taldeari finala irabazi ondotik.

Hemendik zorionak Aloñari eta ea pausoak goiti emanez, talde handi batean ikusten dugun jokalarri gazte hau.

**Futbol campusa Donezteben**  
Bertzalde, Aloñarekin entrenatzen aritzen diren adineko mutikoak eta bertze adinetakoak ere Osasunak antolatutako futbol campusean parte hartu zuten Donezteben. Apirilaren 11tik 14ra, goizean bildu ziren Doneztebeko futbol zelaian, futboleantrebatuz eta lagun berriak eginez.

### Iker Sistiaga eta Amaia Baztarrika herri lanetan

Aurten ere udalak herriko lanetarako bi langile hartzeko lan eskaintza egin zuen. Deialdiaren ondotik, Iker Sistiaga eta Amaia Baztarrika izan dira hautatuak. Sei hilabetez horixe ariko dira sasiak garbitzeko makinarekin, brotxarekin... herria txikuntzen.

### Apirilaren 3ko grebarekin bat egin zuten Pulunpan

Apirilaren 3an hezkuntza arloan sindikatuek Nafarroa osorako deitu zuten grebarekin bat egin zuten Pulunpa eskolako zenbait irakaslekin nahiz ikaslekin. Ea grebak emaitzak ematen dituen, hezkuntza sistema duin baten premia baitago.

### Bisitari ugari ibili da herrian Aste Santuan

Apirileko lehen egunetan hasita, bertze herrialdeetatik etorritako turista eta bisitariekin opor usaina nabari zen gure herrian. Aste Santuan sartuta mugimendua izan zen gure herriko karrika, mendi eta nola ez jatetxe, ostatu eta aterpetxeetan.

### Irakasle eta ikasleak Sunbillako Joko topaketan

Bigarren hiru hilekoa ongi akitzeko Malerreko eskola ttikien joko topaketak ospatu zituzten apirilaren 4an Sunbillan. Saldias, Sunbilla, Legasa, Narbarte eta, nola ez, Pulunpako irakasle eta ikasleak elkartu ziren goizeko lehen ordutik eguerdira bitarte.

### Aurtizko joaldunak Bergarako Erramu Zapatuko ferian

Erramu zapatuko ferian izan ziren Aurtizko joaldunak. Goizeko lehen ordutik eguerdi bitartean Bergarako kaleetan barrena beraien joare soinuak zabaldu zituzten. Urteak dira joaten direla, beti bezala gustura.



**ZURE ZERBITZURA:**

- Berritzea
- Erreparazioa
- Dize edidatzea
- Akzioak
- Buztutzea
- Pneumatikoa

**KALITATEKO MANTENTZE-LANAK PREZIORIK ONENEAN**

Garbitze-zentroa

Gasolindegia

Auto-garbitze automatikoa

Talfer mekanikoa

Hitzordua telefonoz edo whatsapp bidez:

**+34 608 791 971**

+34 948 599 236 · [www.josenea.es](http://www.josenea.es) · [centroauto@josenea.es](mailto:centroauto@josenea.es)

TAILERRAREN ORDUTEGIA: Astelehenerdik ortziratera: 09:00 - 13:00 eta 14:00 - 18:00 Gasolindegia ORDUTEGIA: 24ordu/24

Josenea Zone Auto (Dantzarineko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantzarinea Nafarroa.

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**

**facebook**

[www.facebook.com/ttapi.ttapa](http://www.facebook.com/ttapi.ttapa)

Jarrai gaitzazu!





Informazioa partekatze bilera estalpean. UTZITAKOIA

## Haize erroten aferak herritarren interes handia piztu du

Arburu eta Galardi inguruko zenbait lurren inguruko informazioa eskatu dio udalari Elicio enpresak

### FERMINTXO ETXEKOLONEA

Zubietako Udalak jakinarazi duenez, Elicio izeneko enpresa udalarekin harremanetan jarri da eta hark emandako informazioa herritarrei zabaldu nahi izan die apirilaren 5ean estalpean egindako bilera. Zubietako Udalak helburu horrekin antolatu zuen haize errotoi buruzko hitzordua. Horrekin batera, garbi utzi nahi izan zuen «bilera informatiboa besterik ez zela». Zubietako bi parajetan eragingo luke egitasmoak, Arburu eta Galardin eta, besteak beste, zenbait lur-eremuri

buruzko informazioa eskatu dio Elicio enpresak.

### Berriz elkartzeko

**konpromisoa hartu du udalak** Ernesto Dominguez Zubietako alkateak TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, martxoaren 24an Elicio enpresako kideen elkartu ziren, «eta bileran dugun informazioa herritarrekin partekatu nahi izan genuen». Gaiak interesa piztu du herritarren artean eta 25 lagun inguru bildu ziren. Informazio gehiago izatearekin udalak herritarrekin berriz elkartzeko konpromisoa hartu du.

## Aste Santuaren inguruan hainbat ekitaldi

Aste Santua eta Pazko Astearen inguruan mugimendua nabaritu da herrian eta zenbait ekitaldi izan dira. Errota bisitatzera hainbat lagun etorri dira. Horretaz gain, apirilaren 12an zinema emanaldia izan zuten eskolan eta Nora Twomeyren *The Breadwinner* pelikula ikusi zuten tikiak, Oscar sarietan animazio film onena izateko izendatutako lana. Iciar Mikelparizena margolari ezagunak apirilaren 13an eta 14an emandako tailerren ere gustura ibili ziren neska-mutikoak.

## Malerrekako Egunerako prestatzen hasiak

Berez maiatzaren azkeneko larunbatean egitekoa zen Malerrekako Eguna Oizen, baina asteburu horretan udal hauteskundeak direnez, bi aste aurreratu eta maiatzaren 13an egingen da ospakizuna. Beraz, dena aste pare batez aurreratu behar da eta, esaterako, herriko mus txapelketa ere lehenbailehen egin beharko da. Horretaz gainera, Migel Arregi herritarra Oizko armarrria zizelkatzen ari da Malerrekako Eguneko ikurra den zurean, bertze herrietakoekin batera.



ARANTXA ITURRALDE

## Itzulia Malerrekako barna

Vianan hasi eta Leitzan bukatu zen Euskal Herriko Itzuliko etaparik luzeena, ia 194 kilometrokoa, Malerrekako barna ibili zen apirilaren 4an. Saldiasoko maldan Mikel Landaren ihesaldi saiakera ikusteko aukera izan zuten txirrindulari zaleek. Argazkia, Beintza-Labaien ateria da.



**Guillermo LARRAÑAGA doktorea**  
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuarekin
- Tratamendu estetikoak, armaia eta malformazioak
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbenzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Centro Médico Bera  
San Esteban 17, Bera

**Telefona: 610 549 507**



**BORDAKO**  
Carnes Sein Haragiak, S.L.  
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

Bidurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36



Frontoian hainbat joko egin zituzten. NEREA MEOKI



Irakasleak eta ikasleak elkarrekin. NEREA MEOKI

## Eskola ttikien topaketa egin dute Sunbillan

Lau urteren ondotik, Sunbilla, Saldias, Ituren, Narbarte eta Legasako ikasle eta irakasleak bildu dira apirilaren 4an

**MAIDER PETRIRENA** SUNBILLA  
Aste Santuko oporren aitzinetik, apirilaren 4an, aspaldiko partez Malerrekako eskola ttikien arteko joko topaketa egin zuten Sunbillan. Sunbilla, Saldias, Ituren, Narbarte eta Legasako ikasle eta irakasleek plazan eta frontoian hainbat jolasetan eta kiroletan aritu

ziren, Kulkiren eskutik. Ondotik, denek elkarrekin dantzatu eta bertso politak abestu zituzten. Gogotsu zeuden ikasle eta irakasleak, nola ez, 2019tik ezin izan baitzuten ospakizun hau egin, pandemiaren ondorioz. Beraz, lau urte esperoan egon ondotik, normaltasunera bueltatu eta



Plazan ere ibili ziren eskola ttiketako ikasleak. NEREA MEOKI

elkar ezagutzeko egun ederra izan zuten. Ikasle aunitzentzat ospakizun berria izan zen eta eskoletako "zaharrenentzat" urteotan nola aldatu diren ikusteko eguna.

Eguraldiak lagundu zuen eta goiz polita izan zen.

Lerro hauen bitartez topaketa antolatu duen batzordeari eskerrak eman nahi dizkionte.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTXA ITURRALDE

## 'Gaztaina ximelak' Beintza-Labaienen

Beintza-Labaiengo ohitura zaharrari eutsiz, Ostegun Santuko arratsaldean, haurrak karriketan barrena ibili ziren *Gaztaina ximelak* eskean bi taldetan: batzuk Beintzan eta besteak Labaienen. Antzinako bertso bat abesten duten bitartean, etxez etxe joaten dira, eta bertan goxokiak botatzen zaizkie.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Donamariako Benta eta Arotxa sarituak

Michelin Bib Gourmand zigilua lortu dute aurten ere Donamariako Benta eta Arotxa jatetxeek. Kalitate eta prezioaren arteko oreka onena duten jatetxeak sartzen dira gida honetan eta Donamaria eta Legasako jatetxeek urte batzuk badituzte zerrendan sartzen direla.

## Argazkiekin albumak egiteko ikastaroa martxan

Ikastaroa Elizondon, Donezteben eta Beran emanen dute eta doakoa izanen da

### TTIPI-TTAPA

Argazkiekin albumak egiteko, argazki horiek ordenagailuan gordetzeko eta nola partekatu ikasteko doako ikastaro bat antolatu du Arkupeak elkarteak heldu den asteetarako.

12 saio izanen dituzte denera, eta saio bakoitza bi ordu luze izanen da. Ikastaroak Elizondon, Donezteben eta Beran izanen dira.

Elizondon asteleheneretan eta asteazkenetan izanen da Elizondoko institutuan 16:00etan hasi eta 18:00ak arte. Ikastaroa apirilaren 17an hasiko da, eta maiatzaren 29an bukatuko da.

Donezteben ere asteleheneretan eta asteazkenetan izanen da, baina kasu honetan 18:30ean hasi eta 20:30ean bukatuko da. Arkupeak el-



Ikastaroko parte hartzaileak 2019an.

karteak Donezteben duen egoitzan elkartuko dira. Elizondon bezala, apirilaren 17an hasi eta maiatzaren 29an bukatuko da.

Berako kasuan, aldiz, astearte eta ortzegunetan izanen da ikastaroa, 15:30ean hasi eta 17:30ean bukatuko da eta Toki Ona institutuko ikasgela batean emanen dute. Apirilaren 18an hasiko da ikastaroa eta maiatzaren 24an bukatuko da.



UTZITAKOA

## Teresita Nazabal da martxoko sariduna

Hilabeteroko lehiaketak segitzen du eta martxoko sariduna Teresita Nazabal izan da. Hau da apirilako galdera: **Eskualdeko zein taldek irabazi du berriki munduko sokatira txapelketa?** Erantzunak 618 56 78 37 zenbakira bidali behar dira whatsapppe.



Berako solasaldira joan ziren bazkideak. UTZITAKOA

## Ikusmenari buruzko ikastaroa eginen dute Donezteben maiatzean

### TTIPI-TTAPA

Martxo bukaeran ikusmenari buruzko hitzaldiak egin zituzten Beran, Elizondon, Leitzaan eta Donezteben. Ikusmenean arazoak izan zituzten mintzagai: miopia, glaukoma, presbiza... Gaiak ikusmina piztu duen seinale jende aunitz bildu zen solasaldietara eta gaitz

horien inguruan ikastaro bat antolatu dute. Maiatzeko asteazkenetan izanen da Donezteben 16:00etan hasi eta 17:30ak arte.

Ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek aitzinetik izena eman beharko dute 948 45 08 78 zenbakira edo 618 56 78 37 zenbakietara deituta.

## Juan Jose Oskariz da Arizkungo delegatu berria

### TTIPI-TTAPA

823. aldizkarian aipatu genuen bezala, Inocencia Sukilbidek Arizkungo delegatu izateari utzi zion otsailean. Bi hilabetez ordezko bila ibili ondotik, Juan Jose Oskariz aurkeztu da. Elkarteak eskerrak eta ongi etorria eman dizkio Oskarizi.

Arizkungo delegatua lortu ondotik, Irungoa da gaur egun betetzeko gelditzen den postu bakarra. Norbaitek bere burua postu horretarako aurkeztu nahi badu, elkartearen Doneztebeko bulegora (948 45 08 78 zenbakira) deitu beharko du.

## Elkartearen 28. buletina prestatzeko lanean

Aurtengo bigarren seihileko buletina prestatzeko lanean ari dira elkarte zuzendaritzako kideak. 28. buletina izanen da ekainean banatzen hasiko direna, eta Arraioz herria izanen du azalean. Buletinean elkarte informazio dena agertuko da.

## Ekainetik aitzinerako ekintzak prestatzen

Zuzendaritza Batzordea elkartearen ekainetik aitzinerako egitaraua prestatzen hasia da: bidaiak, ikastaroak, bertzelako ekintzak... Bazkideren batek egitaraurako proposamenen bat egin nahi badu, orain da momentua egiteko.



Taldeko junior mailako txirrindulariak Eugenio Goikoetxea zuzendariarekin.

## Aurrera txirrindulari taldea indartzeko lanean

Hainbat kategoriatako txirrindulariak biltzen ditu gaur egun Aurrerak eta horiei laguntzeko azpiegitura egituratzen ari dira

### TTIPI-TTAPA

Pedalkadaz pedalkada lanean gogor segitzen du Aurrera txirrindulari taldeak, eta hemen-dik aurrera ere, bidea egiten segitu nahi du. Txirrindulari haundien kabi izan da herria, eta halaxe gogoratu nahi izan du Aurrera txirrindulari taldeak: «Azken urteotan onenen artean izan dugu erretiratu berri den Mikel Nieve, eta gaur egun haien artean dabil bizkor Ibai Azurmendi. Mutikotan egin zuten lanaren ordain, uzta ona izan dugu herrian». Baina horiez gain, «maila xumeagoan, profesionalek be-

zalaxe Euskal Herriko hainbat paraje eder zeharkatzen dituzten Aurrera taldeko gure txirrindulariak» aipatu nahi izan dituzte Aurrerakoek. «Beharbada hauetakoren bat ikusiko dugu egunen batean Euskal Herriko Itzulian lehiatzen, baina hala ez izanda ere, bizipen ederrak izanen dituzte beraien lasterketetan eta ateraldietan».

Hain zuzen, Aurrerako txirrindulariek laguntza izan dezaten, azpiegitura egituratzeko ahaleginetan ari da gaur egun taldea: «badaukagu oinarrizko materiala edukitzeko

areto txiki bat (gurpilak, erre-mintak, bizikletak garbitzeko gaiak...); aurten auto eder bat jarri dugu lasterketetan txirrindulariei babes emateko beharrezkoa den guztiarekin; eta garrantzitsuena, tropelean urte askotako eskarmentua daukan zuzendari trebatua: Eugenio Goikoetxea». Gurasoak, berriz, «denen artean zertxobait lagunduz ederki moldatzen ari gara guztia aurrera eramateko», adierazi dute.

### Ateak zabalik

Gaur egun hainbat kategoriatako ari dira Aurrerako txirrindulariak: nesketan haurren mailan eta mutiletan infantiletan, kadeteetan, juniorretan eta master kategorian; mendiko lasterketetan, pistakoetan zein errepidekoetan ibiltzen dira». Aurrera txirrindulari taldeak jakinarazi duenez, Areso, Aldatz, Leitza eta Lekunberriko txirrindulariak dituzte taldean, baina atekak zabalik dituzte: «Prest gaude txirrindularitza euskaraz bizi nahi duen eskualdeko edonor taldean onartzeko; gure nortasuna baztertu gabe, gure jardueraguztiagure hizkuntzan egiten baitugu». Hala, «animatzeko» deia luzatu dute.

Bide batez, bestelako mezua ere egin dute: «Negozioaren edo enpresaren batek errepideetan publizitatea egin nahi badu, edo besterik gabe, eskualdeko txirrindularitza lagundu nahi badu, jar dadila gurekin harremanetan».

## Plazako Pilota Txapelketan aritzeko izen ematea

Aurten, 30. urtez, Plazako Pilota Txapelketa antolatuko du Aurrera elkarteak. Pilota goxoarekin jokatu dute eta 15 urtetik gorakoek parte hartzen ahaliko dute. Izena emateko epea ere zabalik dago eta interesa dutenek apirilaren 22rako eman beharko dute izena Plaza aseguru etxean, bikoteko 25 euro ordainduta. Apuntatzen diren kopuruaren arabeko formatua izanen du txapelketak. Aurtengo edizioak, gainera, berezitasun bat izanen du: 30. urteurrenaren oroigarri izanen den kamiseta.

## Aurrerako ezohiko batzarra apirilaren 26an

Aurrera Kirol Elkarteak zuzendaritza berritzeko ezohiko batzarra apirilaren 26an 19:00etan egingen du. Hasiera batean, martxoaren 31n egitekoa zuen, baina zuzendaritza osatzeko behar baino bazkide gutxiago aurkeztu zela ikusita, deialdia luzatzea erabaki zuten. Interesa dutenek elkartearen egoitzan dauden inprimakiak bete eta apirilaren 22a baino lehen buzoian sartu beharko dituzte. Apirilaren 23tik 26ra, aurkeztutakoen zerrenda argitaratuko dute eta irratik zein sare sozialen bidez ere zabalduko dute..

## Bigarren urtez bizikletazaleen hitzordu ederra izan da Itzulia

### TTIPI-TTAPA

Aurten ere ikusmin haundia sortu du Itzulia, eta jende asko bildu zen apirilaren 4an herri-gunean eta inguruan, Itzuliaren bigarren etapa bertatik bertara ikusteko. Herbehereetako Ide Schellingek irabazi zuen etapa eta hari saria ematera

igo ziren Saioa Sagastibeltza eta Eneko Andueza zinegotziak podiumera. Dena den, pestarako eta txirrindularitzaz gozatzeko ez ezik, aldarrikapenerako aprobeztatu zuten hitzordua, eta Aralarko gasbidearen kontrako mezua zabaldu zuten bi zinegotziek podiumean.



Ide Shelling etapa garailea podiumean Sagastibeltza eta Anduezarekin.

# Udaberri Pesta eta gehiago datozen egunetan

Maiatzaren 20ko eta 21eko asteburuan bukatuko da aurtengo zinema denboraldia

## TTIPI-TTAPA

Udaberri Pesta hartuko du protagonismoa aste honetako agendan. Larunbat honetan, goizeko txistularien dianarekin hasita, pesta giroa nagusituko da: 11:30ean errandoien konpartsa dultzaineroekin aterako da eta 13:00etan dultzaineroek kalejira egingen dute. 14:30ean herri bazkaria egingen dute trikitilariekin eta 19:00etan Burrunba elektrotxarangaren txanda izanen da.

Bestalde, apirilaren 24an Haizea Loirarekin ipuin kontaketa izanen da liburutegian, 18:00etan. Eta hilaren 27an, aurretiatzko borondateen inguruko hitzaldia antolatu dute Herri Aretoan, 19:00etan. Hizlariak Arantzazu Lizartza familia medikua eta Edurne Arrazubi gizarlangilea izanen dira. Bihar ramunean, apirilaren 28an,

Energia Berriztagarrien Komunitateaz hitzaldia emanen dute Herri Aretoan, 18:30ean. Azkeneko hilabeteetan berririk izan ez bada ere, energia komunitatea sortzeko eta lehen proiektua abiatzeko lanetan buru-belarri ibili dira. Hilaren 28an, kooperatiban bazkidetu eta ondoko hilabeteetan egingen den kiroldegiko lehen proiektuan parte hartzeko baldintzen inguruko informazioa emanen dute.

## Zinema denboraldia bukatzeaz

Maiatzaren 6an eta 7an, 16:30eko saioan *Oink-Oink* filma pantailaratuko dute eta 19:00etako saioan *20.000 especies de abejas*. Maiatzaren 20an eta 21ean, 16:30ean *No somos nada* dokumentala ikusgai izanen da eta 19:00etan *Amsterdam*. Hala borobilduko dute aurtengo zinema denboraldia.



DAVID DELGADO

## 40 gaztetxo futbolearen eta multikirolean

Aurrera elkartearen eskutik, futbol eta multikirol campusa egin zuten aurreko astean, apirilaren 11tik 14ra. Erantzun ona izan zuen, 40 neska-mutiko apuntatu baitziren. Hiru taldetan banatuta, lau eguneko 09:00etatik 14:00etara ongi pasatzeko aukera ederra izan zuten.



Martxo bukaeran Sahara aldera keinua egin zuten liburutegian. ELENA ARTETA

## Astean behin xake eskola antolatu dute liburutegian

### TTIPI-TTTAPA

Liburuen txokoa baino gehiago da herriko liburutegia, eta hori agerikoa da antolatzen dituzten hitzorduetan: liburutegi ibiltaria, ipuin kontaketa saioak, hazien liburutegia, irakurle taldea, tailerrak... Berriki martxan jarri duten hitzorduetako bat xake eskola da. Herriko boluntario bati esker, astean behin gutxi gorabehera ordu bateko saioa egingen dute. Xakeak hainbat onura dituela ikusita hasi dira, eta zortzi urtetik gorako neska-mutilentzat da. Interesadunek liburutegira dei dezakete edo bertara hurbildu.

Martxo bukaeran, berriz, Saharako errefuxiatuen kanpalekuetako Kabiak-Bubisher liburutegiei buruzko zikloa egin zuten. Alde batetik, liburutegiei buruzko erakusketa zabaldu zuten eta bestetik, zikloa borobiltzeko, Kamishibai Saharako ipuinen kontaketa izan zuten. Eta apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, apirilaren 24an, astelehenean, ipuin kontaketa izanen dute Haizea Loirarekin. Ipuinak dantza eta musikarekin tartekatuz, *Behin batean dantza artean*, *Behin batean dantza artean* saioa antolatu dute. 18:00etan liburutegian bilduko dira.

## Leitzulia BTT proba irailaren 30ean egingen dute

### TTIPI-TTAPA

Azken urteotako geldialdiaren ondoren, aurtengo Leitzulia BTT proba egingen dutela aurreratu du Mendibil BTT taldeak. Oraingo iragarri duena eguna da: irailaren 30ean izanen da. Probari buruzko xehetasun gehiago aurrerago emanen dutela jakinarazi du.

2019an egin zuten azken aldiz Leitzulia BTT proba, eta 2020an, 2021ean eta 2022an bertan behera uztea erabaki zuten antolatzaileek. 2019koa laugarren edizioa izan zen eta 326 txirindularik osatu zuten



2019ko Leitzulian hartutako irudia.

herriko mendietan barna 42 kilometroko ibilbidea. Aldi hartan proba aurretik omenaldia eskaini zioten Jon Kanflanka *Mikoneri*, segalari ibilbidea utzi berritan.



Otsailean Leitzara egindako irteerako irudia. ARAINBURU MENDI TALDEA

## Larunbat honetan Suron egingen du itzulia Arainburuk

Lau bat orduko itzulia antolatu du Arainburu Mendi taldeak; aldi honetan, herrian bertan

### TTIPI-TTAPA

Apirileko hitzordua ere prest du Arainburu Mendi Taldeak. Larunbat honetan, apirilaren 22an, egingen du, eta kasu honetan, herrian bertan.

08:30ean herriko plazatik abiatuta Suro aldean barna ibilbide zirkularra egingen dute mendizaleek. Hamasei kilometro eskaseko luzera eta 513 metroko malda duen itzulia izanen da, antolatzaileen esanetan, «erraza». Lau orduko inguruko itzulia izanen dela aurreratu dute eta, beraz, 12:30 alderako berriz bueltan izanen direla aurreikusi dute.



Otsaileko ateraldiko argazkia. ARAINBURU

Gainerakoan, bakoitzak bere hamaiketako eraman behar du eta parte hartzeko ez da izenik eman behar. Hori bai, antolatzaileek argitu dutenez, ez dira gerta daitezkeen ez-beharren erantzule egingen.

## Dena prest larunbateko garagardo festarako

### TTIPI-TTAPA

Aurreko aldizkarian iragarri bezala, larunbat honetan, apirilaren 22an, garagardo festa egingen dute Umore Ona elkarteak. 21:30ean hasiko da afaria eta bildutakoek entsalada, zerri saiheskia, saltxitxak, patata purea, postrea, kafea

eta kopa izanen dituzte afalazeko. Euskal Herriko eta kanpoko bost garagardo dastatzeko aukera ere izanen dute: Ago, Tripel, Ixo Horia, Leffe eta Krombacher.

Bildutako dirua Goitiki haurtzandegiarentzako bideratuko dute.

## Mingaño Saltsan sariketako kanporaketa maiatzaren 5ean Umore Ona elkarteak

### TTIPI-TTAPA

Atekaaberts Leitzako Bertso Eskolak antolatutako Mingaño Saltsan bertso afari sariketako herrian geldialdia egingen du. Zehazki, sariketako hirugarren finalaurrekoa Umore Ona elkarteak jokatu dute. Maiatzaren 5ean izanen da, 21:00etan,

eta sei bertsolari hauek ariko dira kantuan: Arrate Illaro, Agin Laburu, Ekhiñe Zapiain, Diego Riaño, Maialen Akizu eta Eneko Araiztegi *Korta*.

Saioa bertso afari formatuan egingen dute eta txartelak Amaia kafetegian edo estankotan eros daitezke, 25 eurotan.

## Mendialdeko Azoka Ibiltaria ekainaren 3an izanen da

Mendialdeko Azoka Ibiltarien aurtengo datak zehaztu dituzte. Guztira bederatzi azoka izanen dira eta Goizuetakoa ekainaren 3an izanen da, larunbatarekin. Azokaren harrera, egun horretan, *txundar* eguna antolatuko dute. Xehetasun gehiago aurrerago.

## Liburutegi ibiltariak apirilaren 28an egingen du geldialdia

Hilabetero bezala, apirilean ere Leitzako liburuzainaren bisita izanen dute herritarrek. Datorren astean, apirilaren 28an, liburuz betetako maletatxoak hartuta etorriko da eta nahi duenak 14:30etik 15:30era liburuak hartzeko aukera izanen du.



**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicidade  
www.kulturkari.com

### Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...



### Hainbat euskarri

Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko



## Asteburu honetan hasiko da Mingaño Saltsan sariketa

AteKaberts Leitzako Bertso Eskolak bigarren aldiz Mingaño Saltsan bertso-afari sariketa antolatatu du

### TTIPI-TTAPA

Joan den urteko arrakasta errepikatzeko gogoz, eta «lagun arteko giroan bertsoaz gozatzeko», aurten ere Mingaño Saltsan bertso-afari sariketa antolatatu du AteKaberts Leitzako Bertso Eskolak, Leitzako Udalaren, Uitziko Kontzejua-ren eta Larraungo Udalaren, Azkarateko kontzejua-ren eta Goizuetako Udalaren laguntzarekin. Asteburu honetan hasita, hiru finalaurreko jokatuko dituzte eta ondoren finala maiatzaren 19an Leitzan.

### Lehen finalaurrekoa Azkaraten eta bigarrena Uitzin

Larunbat honetan, apirilaren 21ean, Azkarateko elkartean, egingen dute aurreneko saioa. 21:00etatik aurrera sei bertso-lari hauek ariko dira kantuan: Ane Zuazubiskar, Etxahun Lekue, Aroa Arrizubieta, Aratz Igartzabal *Potto*, Ainhoa Agirreazaldegia eta Xabat Illarregi leitzarra. Bertso afari sariketako sarrerak Beteluko ostatuan eta Arribeko gasolindegian eros daitezke. Bigarren kanporaketa apirilaren 28an Uitzin

tziko elkartean egingen dute, hori ere 21:00etan. Beste sei bertso-lari hartuko dute lekukoa: Miel Mari Elozegi *Luze* leitzarrak, Onintza Enbeitak, Millan Telleriak, Maddi Ane Txoperena lesakarrak, Iñaki Zelaiak eta Amaia Iturriotzek. Sarrerak, 25 eurotan, Ainhoa tabernan eta Maimur liburu dendan eros daitezke.

### Hirugarrena Goizuetan

Hirugarren eta azken finalaurrekoa Goizuetan izanen da. Maiatzaren 5ean, 21:00etan, Umore Ona elkartean bilduko dira eta Arrate Illaro, Agin Laburu, Ekhiñe Zapiain beratarra, Diego Riaño leitzarra, Maialen Akizu eta Eneko Araiztegi *Korta* ariko dira bertsoan. Sarrerak Goizuetako Amaia kafetegian eta estankotan eros daitezke. Aurreko saioetan bezala, 25 eurotan izanen dira.

### Finala Leitzan

Horien artean sei bertso-lari hartuko dute finalerako txartela. Finala, berriz, maiatzaren 19an Leitzako Torrean izanen da.



Leitzako ekainaren 5ean Goizuetan egingen zen azokan hartutako irudia. FELIX LOIARTE

## Bederatzi azoka ibiltari egingen dituzte aurten Mendialdean

### TTIPI-TTAPA

«Bertako baserriarrek eta artisauak egindako garaiko produktuak sustatzeko, ikusarazteko eta saltzeko helburuarekin» lanean segitzen du Mendialdea eskualdeak. Eta bide horretan antolatatu dute laugarren aldiz azoka ibiltariaren denboraldia. Aurten, guztira, bederatzi azoka izanen dira, besteak beste, Goizuetan, Leitzan eta Areson. Aurrenekoa apirilaren 16an Arriben (Araitz) egitekoa zuten, Emakume Artzainen Egunarekin batera eta urriaren 8an Beuntzan (Atetz) egingen dute azkena.

Azoka ibiltariak Mendialdeko hamar udalek antolatzen dituzte –tarteetan, Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako udalek-, Cederna Garalur eta Plazao-lako Turismo Partzuergoaren koordinazio teknikoarekin, eta Habelarte baserriarren elkartean, eta Araizko Zapora, LeitzEKO eta Bertatik Bertara dinamiken eta eskualdeko hezkuntza zentroen laguntzarekin.

### Bederatzi azoka


Apirilaren 16an Arriben (Araitz) egitekoa zuten azokaren ondoren, maiatzaren 14an, Arruitzen (Larraun) egingen dute. Aldi berean, latxa arrazako ahari genomikoen enkantea antolatatu dute. **Ekainaren 3an Goizuetan** hartuko du lekukoa eta azokarekin batera, egun

horretan *txundare* egingen dute. Ekainaren 25ean, Lekunberrin bilduko dira; uztailaren 2an Latasan (Imotz) eta uztailaren 30ean Jaunsaratsen (Basaburua). **Irailaren 10ean, Leitzan** hartuko du azoka ibiltaria eta egun horretan talo eguna ere egingen dute. **Irailaren 24an Areson**, bilduko dira eta urriaren 8an Beuntzan (Atetz).


### Tokiko produktuak

Azoka guztiak 10:30etik 14:00etara izanen dira, eta «modu iraunkorrean eta arduratsuan egindako tokiko produkturik» eskainiko dituzte. Alde batetik, elikagai freskoen eta eraldatuen aukera zabala izanen da: arrautzak, gazta, jogurta, hestebeteak, ezti, marmelada, ogia, garaiko barazkiak, olio, sagar zukua, garagardoa, taloa, txokolatea, pate... Eta bestetik, elikagaiak ez diren artisauen produktuak ere izanen dira: xaboiak, zilarrekin eta larruarekin egindako lanak, kosmetika naturala, zapatak, bitxiak, zurezko tailla lanak...

Bestalde, garaiko eta bertako produktuak dibertsifikazioa sustatzeko, eskualdetik kanpoko ekoizleak eta artisauak gonbidatuko dituzte azoketara, eta horretarako «inguruko herrietakoak eta Nafarroakoak» lehenetsiko dituztela adierazi dute.



Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.  
Egiten ditugun lanak:  
Fabriken konponketak,  
segurtasun-sistemen  
instalazioak, tellatuen eta  
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.



948 031 174  
info@anelan.pro



**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicistas  
www.kulturkari.com

**Etiketak eta pegatinak**  
Paperean edo biniloan  
(opakua edo gardena)  
Bobinan edo soltean,  
formarekin moztuak...

## «Sufritzeko eta gozatzeko aukera emanen du lasterketak»

**UNAX ERASO ETXENIKE** IRURITAKO MENDI DUATLOIKO ANTOLATZAILEA

Pandemiaren ondorioz azken urteetan bertan behera gelditu bada ere, Iruritako Mendi Duatloien antolaketa berrartu dute aurten, eta horren berri eman digu Unax Erasok

**R. OSKARIZ** IRURITA

Hiru urteko geldialdiaren ondotik, Iruritako III. Mendi Duatloia egingen dute aurten, maiatzaren 7an. Unax Erasok antolatzailerako batekin azaldu duenez, «eskualdean dauden bizikleta eta mendirako zaletasunak praktikan jartzeko aukera» ematen duen proba herrikoa da, eta gogotsu hartu diote antolakuntzari.

**Noiz hasi zineten duatloia antolatzen?**

2018an. Pandemiaren aitzineko bi urteetan antolatzen genuen eta emaitza aski onak lortu zirela kontuan hartuta, aurten berriz ere antolatzeko gogoia piztu zitzaigun.

**Nolakoak izan ziren lehen edizioak?**

Arras arrakastatsuak, lehen-dabizikoan 150 kirolari inguru bildu ziren eta bigarrenan 200 kirolariren langa gainditu genuen.

**Hirugarren edizioa prestatzen, aunitz aldatu da?**

Antolakuntza aldetik martxa hartu diogu. Egia da urtero ditugula lan berriak, eta gauza bat eta bertzea dela, lan dezente pilatzen dela. Aurten bi ibilbideetan aldaketak egin ditugu eta horrekin batera desagertutako xendaren bat ere berreskuratu dugu.

**Antolaketa gogotsu hartu duzue?**

Bai, pandemiaren ondorioz alde batera utzi behar izan dugulako ekimena azken hiru urteetan.



Unax Erasok lasterketako antolaketa taldeko kide da. ITZALAK PHOTOGRAPHY

**Lan handia da?**

Zer egin behar den aski ongi dakigun arren, praktikara eramate hori dezenteko lana da, bai. Eguberrietako oporetan bildu ginen lehendabiziko aldiz eta bertan adostu genuen data. Hori erabakita, gainerako kontuak lotzen hasi ginen.

**Egunean bertan boluntarioen beharra ere izanen duzue, ez?**

Bai, boluntarioen laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke proba hau aitzinera ateratzea. Baina ez boluntarioak bakarrik, ekimena aitzinera eramatera laguntzen diguten babesle guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, haien sostengurik gabe ezinen litzateke lasterketa antolatu.

**Eguraldia lagun izatea espero duzue edo tradizio bihurtu da eguraldi kaskarrarekin egitea?**

Aitzineko bi edizioetan izan dugun eguraldia hobetzea ez da gauza zaila, beraz, ziurtatu dezakegu aitzinekoetan baina eguraldi hobea egingen duela! Hala ere, mendi duatloi batek tartean euria, lohia... baditu ere, aski dibertigarriak izaten dira.

**Aurten ibilbidea aldatu duzue. Zergatik?**

Aitzineko edizioetan ibilbidea herriko dezente urruntzen zen, eta sumatu genuen denbora tarte batean herrian ez zela kirolaririk ageri. Aurten ibilbideak herri inguruan egingen dira, eta ikusleak momentu oro izanen du kirolariren

bat herriko pasatzen ikusteko aukera. Herrian etengabeko mugimendua izanen da.

**Zein da ibilbidearen tokirik bereziena?**

Ez nuke toki bakarrik aipatuko. Bi ibilbideak orokorrean aski politak dira, sufritzeko eta gozatzeko aukera ematen duten horietakoak.

**Lasterketa banaka eta binaka egin daiteke, ezta?**

Hori da. Banaka egiteko aukera kirolari bakarrak egiten du lasterka eta bizikletan. Binaka egitean, bikotekide bakoitzak modalitate batean parte hartzen du eta gero bi denborak batzen dira. Normalean, bikoteka aunitzez ere jende gehiagok ematen du izena.

**Zerbait gehitu nahi duzue?**

Eskertuko genuke proban parte hartu behar duen kirolari orok lehenbailehen izena ematea. Guretako beharrezkoa da zenbat kirolari izanen diren jakitea, antolakuntzan eragina baitu 50 edo 200 kirolari etorri behar diren jakiteak. Horrez gain, ibilbideak [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) webgunean daude, baina norbaitek nahiago badu antolakuntzako batekin egin, gurekin kontaktuan jarri eta gustura lagunduko diogu.

### Bi ibilbide

Maiatzaren 7an egingen da duatloien hirugarren edizioa, eta bi ibilbide izanen ditu; lasterka 8,5 km eta 290 metroko desnibelarekin eta bizikletan 19,75 km eta 640 metroko desnibelarekin.

Izen-ematea apirilaren 29ko 22:00ak arte [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) web orrian egin daiteke.

Taldearekin harremanetan jartzeko [irurita-koduatloia@gmail.com](mailto:irurita-koduatloia@gmail.com) helbide elektronikoa jarri dute eskuragarri.



# Gradu akaberako lanen bekak hiru saridun izanen ditu

Aroa Urteaga, Beñat Verde eta Anne Garmendia izanen dira sarituak, eta 500 euroko dirulaguntza bana hartuko dute

## TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, bailararekin zerkusia duten ikasketa akaberako lanak eta proiektuak diruz laguntzeko beka deialdia egin du Baztango Udalak, eta aurten hiru saritu izanen ditu: Aroa Urteaga Amiano, Beñat Verde Mugiro eta Anne Garmendia Zubikoa elizondoarrak. Hiruek dirulaguntzaren baldintzak bete dituzte, eta lanak aurkezterakoan 500 euroko sari bana hartuko dute.

Aroa Urteaga Amiano Sor-kuntza eta Diseinuko gradua egiten ari da EHUko Arte Ederren fakultatean. Bere lanaren helburua bailara irudikatuko duen grabatuen bilduma osatztea da, herri bakoitzeko marrazkiak artista liburu moduko batean lotuz eta herri bakoitzaren elementu adierazgarrienak (eraikinak, monumentuak, landaredia...) irudikatuz eta bilduz.

Beñat Verde Mugiro Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzan Gradua ikasten ari da NUPan. Dirulaguntza deialdirat aurkeztu duen egitasmoa 'Ond-

doek eragindako eritasuneko tolerantateak diren mahasti barietateen azterketa eta mahastizaintza eta ardogintzaren potentziala Baztanen' da.

Azkenik, Anne Garmendia Zubikoa Haur Hezkuntzako Irakasle Gradua ikasten ari da NUPan eta 'Adingabeek familia barruan pairatzen dituzten tratu txarren detekzio goiztiarra marrazki analisiaren bitartez' lana egingen du. Bere lanaren alderdi praktikoa Baztango Gizarte Zerbitzuei, Foruzaingoari, Elizondoko pediatra eta Baztan Ikastola-ko irakasleei galdetegi bat betearaziz egingen du, horrela, arlo horietako profesionalen ezagutzak eta haien arteko lan koordinazioaren inguruko informazioa lortuz.

Bekaren epaimahaia Lekaroz ikastetxeko eta Elizondoko lanbide heziketa ikastetxeko zuzendariak, Baztango Cederna-Garalurreko teknikariak eta Baztango alkateak osatu dute. 2016an deialdia lehen aldiz egin zenetik, denera hamaika laguntza eman dituzte.

## Orain arte egindako lanak

Hamaika lan saritu ditu udalak orain arte: *Turismoa Baztanen; XVII-XVIII. mendeetako goi-mailako etxeen tipologia; Mutil-dantzak eta emaztekien parte hartzea; Baztango haur eskolaren proiektu pedagogikoa; Amaiurko euskararen berezitasuna; Emakume etorkinen egoera; Baztango nekazaritza XVI. mendetik XVIII. menderat; Baztango turismoa iraunkorra al da?; Baztango kaparetasun unibertsalaren bilakaera; Anizko Jaurregia esnekietarako postretarako esneki berri bat; Autokontsumo partekaturako potentzialitate fotovoltaikoa Berroetan.*



23:00etatik aitzinera Ibil Bedi taldeak kontzertuekin segituko du. IBIL BEDI

## Andoni Ollokiegi, Ibil Bedi, Olaia Inziarte eta Bines Katiko azken Arizkun Rocken

### TTIPI-TTAPA

Arizkun Rock jaialdiaren antolakuntza taldeak aurtengo edizioaren kartela ezagutzera eman du, ekainaren 23an, ortziralea, herriko plazan ospatuko dena. 19:00etan hasiko da festibala Andoni Ollokiegirekin, eta gauean, suendako geldialdia egin ondotik, kon-

tzertuak berrartuko dituzte 23:00etatik aitzinera Ibil Bedi, Olaia Inziarte eta Bines Katiko artistekin.

Beti bezala, kontzertuak dohainik izanen dira, akanpalekua izanen da eta baita bokatak erosteko aukera ere. Gainera, aurtengoa azken edizioa izanen da.

# EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOA

Proiektu, baimen eta diru laguntzen gestioa  
Amortizazio planen azterketa



# ELEK BERRI

INSTALAZIO  
ELEKTRIKOAK

646854825 / 616898065 · elekberri@gmail.com · Elizondo (Baztan)

# Iratxe Retolaza eta Eider Rodriguezen solasaldiak

Literaturari buruzko bi solasaldi izanen dira Baztango Liburutegi Publikoan aste honetan eta hurrengoan

## TTIPI-TTAPA

Literatura Geraldia ekimena martxan paratu dute Baztango Udalak, Bortzirietako eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak eta Sakanako Mankomunitateak.

Euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea dute helburu; «herritarren euskarazko kultur kontsumoa eta euskal liburugintza indartzea, liburutegi publikoen erabilera bulkatzea eta esperientzia literarioak konpartitzea».

Horretarako, hainbat solasaldi antolatu dituzte Nafarroako hainbat herritan, eskualdekoen artean Arantzán, Lesakan, Leitzan eta Beran. Baztanen ere izanen da solasaldiak aditzeko aukera, zehazki bi Elizondon:

### Irakurbide feministak euskal literaturan

Apirilaren 19an 18:00etan Iratxe Retolaza idazleak *Irakurbide feministak euskal literaturan* solasaldia emanen du Baztango Liburutegi Publikoan. «Literaturak femi-



Iratxe Retolaza eta Eider Rodriguez idazleek emanen dituzte solasaldiak.

nistondako zertarako balio duen erakustea» du helburu, «baita hausnarketa egitea ere, heziketa literario bat jaso dugula, eta heziketa horretan, oharkabean, balore batzuk jaso ditugula denok. Nahi ala ez, eredu batzuk, kanon asko, ikuspegi matxista batetik ezarriak dira».

### Idazleen gorputzak

Apirilaren 26an, berriz, Eider Rodriguezek *Idazleen gorpu-*

*tzak* liburua aukertuko du 18:00etan Baztango Liburutegi Publikoan. Idazleak, literaturaren inguruko hausnarketa eta kritika ez ezik, emakumeek literaturan duten tokiaren inguruko datuak eta emakume idazleen ahotsak dakartza liburu honetan.

Idazleekin Solasean elkar-teak eta Baztango Udaleko Euskara eta Berdintasun Zerbitzuek antolatu dituzte bi hitzordu hauek.

**BRIKO BAZTAN, SL**

Drogeria · Garbiketa produktuak  
Ferretaria · Sukaldeko tresnak  
Mozorroak · Papertegia  
Kiroleko eta mendiko jantziak  
Moda · Oinetakoak  
Laneko arropa · Bitxiak  
Lurrin-denda  
Kosmetika, Elektronika  
Telefonoak · Poltsak eta mailetak  
Etab.

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

Ohariz Auzoa z/g - LEKAROZ  
T. 948 452 143 - 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN, S.L.**  
ESTRUCTURAS Y OBRAS

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicidades  
www.kulturkari.com

**Enpresentzako materiala**

Txartelak, gutun-azalak,  
orriak, talonarioak,  
karpetak, zigiluak...

**Herencias y Gestión**

Zuregandik hurbil gaude

Mugaz gaindiko herentzien onarpena

Gizarte segurantzaren pentsioen eskaera

Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36  
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

# Areto-futboleko txapelketa solidarioa arrakastatsua

9 taldek eta 97 jokalarik eman zuten izena eta 800 euro biltzea lortu zuten, eskola ttikiendako eta Bidelagunendako

## TTIPI-TTAPA

Baztango I. Areto-futboleko Txapelketa Solidarioa antolatu zuten bailarako bartz gazte apirilaren 5etik 9ra Elizondoko kiroldegian. Bederatzi taldek parte hartu zuten, hiru multzotan aritu zirenak. Larunbatean jokatu zituzten finalerdiak eta igandean finalak. Irabazleak Aietzak izan ziren, bigarren postuan Basaburua, hirugarrenak Vozka Juniors eta laugarren Gartzain. Honez gain, txapelketako atezain onena Iñigo Berro izendatu zuten, jokalaria onena Andoni Etxenike eta pitxitxia Elur Meoki 10 golekin.

Guztira 800 euro biltzea lortu zuten, horietatik 400 euro Bidelagun elkarteari bideratuak eta gainerako 400 euroak Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango Eskola Ttikiei. Aritz Eli-



Txapelketaren bartz antolatzaileak.

zeგი antolatzaileak azaldu duenez, «jende pila bat hurbildu zen eta giro arras ona izan genuen bartz egunetan. Heldu den urtean beriz ere egiteko gogoarekin gelditu gara».



Aietzak, Basaburua, Vozka Juniors eta Gartzain taldeak. ANTOLATZAILEAK

**OTEIZA**  
ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43  
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia

 [oteizaarquitectos](https://www.oteizaarquitectos.com)

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatua

Dibortzioak, herentziak,  
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
Santiago, 59 2C ELIZONDO

**KATEA BIKE**

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
joxemi@kateabike.com  
www.kateabike.com



**ANZABAL**  
inmobiliaria

- Inmobiliaria  
Baseri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Haute École Lucia de Brouckère ikastetxeko ikasleek harrera egin zieten. CNAI

## Lanbide Eskolako sei ikasle Bruselan izan dira

Europako Parlamentua bisitatu eta Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaritza ezagutzeko aukera izan dute

### TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lanbide Eskolako Administrazio eta Finantza goi maila elebiduneko sei ikasle Belgikako hiriburura joan dira astebetetz, CNAIren (Nafarroako Ikaskuntza Integraleko Zentroa) hizkuntza eta kultura murgiltze programarekin. Bertan, frantsesaren erabilera praktikoa eta erreala egiteko aukera izan dute, eta graduaren antzeko hezkuntza esperientziak ezagutu dituzte, hizkuntza formakuntzaren osagarri gisa.

Bruselako egonaldian bertako ikastetxeak eta erakun-

deak bisitatu dituzte. Bertzeak bertze, Europako Parlamentuan izan dira, eta bertan Adriana Maldonado europarlamentaria ezagutu dute. Gainera, Nafarroako Gobernuak ordezkaritza eta estatuko enbaxadaren funtzioak ezagutu dituzte.

### CNAI

Nafarroako Ikaskuntza Integraleko Zentroak azaldu duenez, ekimen hauen helburua «Lanbide Eskoletako ikasle eta irakasleen hizkuntza gaitasunak hobetzea da, testuinguru europar erreala batean».

## Baztango gazteak mugimendurako prest udaberri honetan

### TTIPI-TTAPA

Baztango Gazte Asanbladak hainbat ekitalditan parte hartuko du apirilean eta maiatzean zenbait lekutan.

Apirilaren 22an Erdiz Bizirik plataformak Iruñean deitutako manifestaziora joanen dira, Antoniutti parketik 17:00etan abiatuko dena. Hilaren 28an, berriz, Iruritan izanen dira, Irakurle taldeak antolatutako *Bihurguneko nasa* liburuaren aurkezpenean, Uxue Apaolazaren eskutik. Kaiola elkarteak 18:00etan izanen da hitzor-

dua. Azkenik, apirilaren 29an gaztetxean bertan *Celos, toxicidad y ética en las relaciones* tailerra izanen dute 11:00etan, Mikel Abaurreak gidatua.

Maiatzeko ere bi hitzordu antolatu dituzte Baztango gazteek; hilaren 6an poesia errezitaldia izanen dute gaztetxean eta maiatzaren 20an frontenis txapelketa antolatuko dute.

Gaztetxeko kideek jarduerak hauetan parte hartzera animatu dituzte baztandarrik.

## 'Karpeta urdinak' filma proiektatuko dute Iruritan apirilaren 21ean

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatua, Zinema Zikloarekin segituko dute apirilean ere Iruritan Gizarte Bilgunean. Zehazki, *Karpeta urdinak* dokumentalaren proiektua izanen da apirilaren 21ean, ortziralea, 19:00etan.

### 'Karpeta urdinak'

Anderrek, bertze aunitzek bezala, susmatzen du bere aitak torturak jasan zituela komisaldegi hartan. Susmoak argitzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak Bake eta Bizikidetz

Planaren esparruan 1960-2014 bitartean egindako Tortura eta tratatu txarrak ikertzeko Proiektua ezagutuko du.

Ikerketa honetan argitaratutako emaitzek izututa, proiektuan parte hartu zuten medikuntzan, psikologian, psikiatrian eta abokatutzan aritutako pertsonekin elkartuko da berriro, eta "tortura psikologikoa", "Istanbulgo Protokoloa" edo "hurbilketa estatistikoa" bezalako kontzeptuak irakatsiko dizkiote eta ipar globaleko torturaren errealitatea erakutsiko diote.

**Arotxa**

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18  
31730 IRURITA  
arotxa.taller@gmail.com  
www.arotxataller.com

**GARAJEKO ATEAK** | **HORMANN** banatzaile ofiziala

**TOLDOAK - ESTOREAK** | Etxea-merkataritza-ostalaritza

Eguzkiak babestu teldo batekin



ELIZONDO  
LANBIDE ESKOLA  
IPP-CIP

Izen-ematea:  
apirilaren 24tik maiatzaren 5era

*Euskaraz eta hemen!*



Erizaintzako Zainketa Lagungarriak



Natura Inguruneko eta Aisialdiko Gidaria



Mekanizazioa



Administrazio Kudeaketa



Administrazioa eta Finantzak

Erdi  
mailako  
zikloak

Goi  
mailako  
zikloa

Info. +



848 43 16 32

[www.cipelizondoiiip.web.educacion.navarra.es](http://www.cipelizondoiiip.web.educacion.navarra.es)



Zirikolatz taldekoak dantzan. JL BESSONART

## Kultur Topaketen Garaia bikain joan da bigarreanean ere

Apirilaren lehen hamabostaldian herritarrek kulturara hurbiltzeko eta Larreko hobeki ezagutzeko parada izan dute

### JL BESSONART

Hamabost egunez, apirilaren 1etik 16ra, sekulako ekimenak proposatuak ziren *Kultur Topaketen Garaia* izenburuarekin, Herriko etxeak bigarren urtez antolaturik. Ez ditugu denak zerrendatuko, kasik egunero ekitaldi berezi bat zelakoan aurkeztua, tailerrak, dantza, kantu, antzerki, margo eta argazki erakusketa eta abar.

Bilduma laster batez, denetarik izan da publikoaren parte hartzearen aldetik, beti bezala ekitaldi jendetsuak alde batetik eta bertetik gutxiago.



Senperen Kantuz errotan.

Bederen parada polita eskainia zen eta gehienetan urrik, xedea zelarik herritarrek hurbil daitezten kulturara, baita Larreko kulturgunea hobekia-go ezagutu dezaten ere.

## Mendiko autoen 45. Lapurdiko Rallya irabazi du Louis Dronde zuberotarrak

### JL BESSONART

Mendiko autoen 45. lehiaketak, protagonista erabakigarria ukan du aurten euriarekin. Martxoaren 18an larunbatean, goizarekin abiatu ziren bide lehorretan, haatik arratsaldean sartu zen eurialdiak ez zituen utzi asteburu guzian. Zube-

roako Santa Graziko Louis Dronde, faborito handia izanik, berriz ere garaile izan zen, minutu baten abantailerekin Stephan Bartheren aitzinean. Hirugarren tokia tokatu da ongi ezagun bati, Luhusoko Mathieu Hirigoyeni, hau ere Frantziako txapeldun izana.

## Mendi bizikleta eta oinezko ibilaldiak apirilaren 23an ikastolaren eskutik

### JL BESSONART

Zaldubi Ikastolak, udaberriko aroa baliatuz, usaiko ibilaldia antolatu du apirilaren 23an, igande goizarekin. Kirol zelaitik abiatuta, betiko ibilbideak proposatuak dira, alde batetik mendiko bizikletendako (30 kilometro luze eta 1.300 metro inguruko desnibela duena edo 20 kilometrokoa, 800 metroko desnibelarekin, aukeran). Txirindularien abiatzea 08:00etan izanen da. Oinezkoendako ibilaldiaren hasiera, aldiz, 08:30ean izanen da eta hauek ere 8 kilometroko edo 15 kilometroko ibilaldiak egiteko aukera izanen dute.

Giro ezin hobean iragaiten da goiza, belaunaldiak nahasiz eta lehiaketa baztertuz, bakoitza bere erritmoan. Alta, mementorik zaporetsuena gelditzen da: eguerditako zin-



Oinezkoak eta bizikletak ibiliko dira.

tzur-bustitzea, baita axoarekin eginiko apairua ere, xapito pean. Gorputzaren nekeak merezi du gozamina, beraz ez huts egin igandeko hitzordura.

## Gaizki hasi baina Akitaniako lehiaketan sartzea lortu du SPUC errugbi taldeak

Errugbiko denboraldia ezin gaizkiago abiatua zuen SPUC taldeak joan den udazkenean emaitza txarrekin, sailkapeneko buztanean. Neguan, aldiz, indar guziak bildurik, emeki-emeki taldea bizkortu da eta udaberriari sarituak izan dira laugarren postua

eskuratuz, Billere/Lescar-eko talde gotorra garraituz, multzoetako azken partidari. Emaitza honi esker, Akitaniako lehiaketan sartu dira. Hilaren 16an Mezin-eko ekipoaren kontra aritzekoak ziren, haatik irabaztea beharrezkoa zuten segidarentzat.



Louis Dronde zuberotarrak irabazi du Lapurdiko Rallya. UTZITAKOIA



Apirilaren 1eko ibilaldian gustura ibili ziren. ARANTXA ETA IRAIA

## 30 lagunek mendi itzuli polita egin zuten apirilaren 1ean

Bederatzi kilometroko ibilaldiaren ondotik, Ortzirale Saindu egunean, berriz, 25 kilometrokoa egin zuen talde ttipiago batek

### ARANTXA ETA IRAIA

Apirilaren lehenerako plan polita antolatua zen: 9 kilometroko mendi itzuli baten egiteko deitua zen nahi zuen guztia. Eguzkia hodei tartean kukutu bazen ere, bildu ziren 30 lagunek ibilbidea gustura egin zuten, ez baitzuen euririk egin. Herriko hainbat xoko ikusiz hiru ordu pasa zituzten eta, behin ibilbidea akitu ondotik, Koxka jatetxean bazkari eder batez gozatu zuten.

Hortik egun batzuetara, Ortzirale Saindu egunez, bertze ibilbide baten egiterat animatu zen lagun talde ttipiago bat.



9 kilometroko txangoa egin zuten.

Kasu honetan 25 kilometroko ibilbidea zen eta, goizean, 07:30ean herriko plazatik abiatu, ibilbidea egin ondotik bertze bazkari batekin boro-bildu zuten eguna.



ARANTXA ETA IRAIA

## Aste Saindua mugitua izan da

Aste Sainduan Urdazubik berriz bizia hartzen du. Neguko iluntasuna pasaturik, Aste Sainduan hainbat turista ikusteko parada izan zen. Ostatuez gain, lezeak, Trikuharry animalien parkea, monastegiko erakusketa... Pazko igandez artisau azoka ere izan zen eta horrek ere jendea plazarat ekarri zuen.



ARANTXA ETA IRAIA

## Fagoagategia berriz ere irekia

Fagoagategia berpiztu zaigu. Etxe ederra estaltzen zuten sasi guztiak kendurik, agerian gelditu da eta Aste Saindu hasieran, bere lorategian ostatu ttipi bat ezarri zuten. Horrela, herrian trago baten hartzeko bertze leku bat ireki zaigu: Juanito izeneko rulote ttipia bere mahaineekin.

**MARMOLES SOULE**  
www.marmolessoule.com

LAPIDAK  
PANTEOIAK  
HILERRIAK  
ZAHARBERRITZEAK  
GARBIKETAK  
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**  
Jarrai gaitzazu!

facebook  
www.facebook.com/ttipi.ttapa

**Montxo**  
SATEKHA • ERBETEGIA  
Tradizioa, historia eta gastronomia  
asadormontxo.com

Akuler karrika, 12  
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)  
+34 848 85 00 21  
info@asadormontxo.com



75 lagun bildu zituen Lur Berriko bazkariak. GANEX

## Urteko biltzarra egin du Beti Gazte adinekoen elkarteak

Apirilaren 1eko bileraren ondotik 75 bazkide elkarretaratu dira Lur Berri gelan egindako bazkarian

### GANEX

Beti Gazte elkartearen urteko biltzar nagusia egin zuten apirilaren 1ean eta bazkaria egin dute Lur Berri gelan. 75 kide baziren elkarretaratuak, Haragiteko Mariane eta Tristan Sagek egindako bazkari eder baten aitzinean.

Jeannot Etxeberrigarai lehendakariak denei ongi etorria eman zien, horizatea eskertuz, «zeren kiderik gabe ez da elkarterik». Bulegoa kontent dela ere aipatu zuen, «zeren bisaia berri batzuk badira, zortzi etorriak gurekin egun goxo baten pasatzerat». Bertze

bazkari bat egingen dute ereira-roaren 17an *Trois Fontaines* jatetxean eta azkena, urriaren 28an, Huregui jatetxean.

Michel Ferraz diruzainak eman zituen kontuak: «Herriaren subentzioarekin, baita Azkaineko Larrun Kanta koralak ematen duenarekin ere, kontuak positiboa dituztela». Lehendakariaren azken hitza, «pentsamendu haundi bat mundu honetatik joanak diren guzientzat». Denek zutik eman eta *Agur Jaunak* kantatu zuten. Bazkaria Ttote musikariak ongi airostu zuen, euskal kantuekin.



GANEX

## Olhain ikastolako antzerki jaialdia

Olhain ikastolak egin du bere antzerki erakusketa martxoaren 31n, kiroldegian. Haur guzietan egin dituzte beren antzerkiak: examinak euskaraz, eurria eta ura, futbola, gerla eta bertze. Izigarri ongi aritu ziren, handiak eta tiki horiek behar ziren ikusi! Jende anitz bazen etorria sustengatzerat.



GANEX

## Zangoak Arin eta sabela betea

Zangoak Arin elkarteak bere biltzar nagusia egin zuen martxoaren 30ean Lur Berrin. Eguna finitzeko 65 kide elkartu ziren bazkaltzera Pikassarria jatetxean. Elkarteak beti handitzen ari denez, korrikalari gidak beharko dituzte emendatu. Kontuak positiboan dituztela aipatu zuten.

BARDIN 11780 Bera    BEHOBIA 20305 Iruin    LUZAIDE 31660 Luzaide    DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunero irekia,  
astelehenetik  
igandera arte  
\*Abenduaren 25<sup>a</sup> eta  
urtarrilaren 7<sup>a</sup> itan epea

Jantzi-dendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak  
Harategiak · Jatetxeak · Ostatuak · Sugardotegia

www.venta-peio.com    Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.)    Tel. +34 948 625 130 (Es.)

## San Josepe eskolako gurasoek kontzertua antolatua

San Josepe eskolako gurasoek kontzertua antolatua dute Lur Berri gelan, apirilaren 23an, igandean 16:00etan. Txartelak 6,50 eurotan aitzinetik erreserbatuz turismo bulegoan edo 8 euro bertan. 15:00etatik goiti ostatua eta krakada eskainiko dute.





UTZITAKO ARGAZKIA

## Manex Etxeberri-Pacheco txapeldun

Manex Etxeberri-Pacheco pilotari saratarra, Euskal Herriko txapeldun suertatu da esku huska buruz buru trinketeian. Apirilaren 8an Uztaritzen jokaturako 19 urtez azpiko gazteak B mailako finalean. Sarako Izarrako pilotariak 30-20 irabazi zion Baigorriko Zaharrer Segiko Mattin Etxeberri.



GANEX

## 40. Idazleen Biltzarra arrakastatsua

40. Idazleen Biltzarra ongi pasatu da Pazko biharamunean. Jende ainitz ibili da, zeren bazen zer ikusteko. Hainbat libururen aurkezpena egin dute. Estofazko leihorretakoek ere izan dute jende, eta mediatekan haurrak ibili dira. Olhain Ikastolak ere izan du bere arrakasta ostatuarekin.

# Nafarroaren Eguna ospatuko dute apirilaren 30ean

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte Baigorriin, baina aitzinetik Kulturaldiko azken ekintzak egingen dituzte

### TTIPI-TTAPA

Apirilaren 30ean, Basaizea Kultur Batasunak antolatutako Nafarroaren Eguna ospatuko dute Baigorriin, egitarau zabalarekin. 09:00etan merkata elizako plazan eta ikastolako askaria. 11:00etan desfilea Behereko plazatik Gai-neko plazarat Ortzaizeko kabalkada, Beasain, Irurtzun eta Leitzako dantza taldeekin, makilariak, Nafarroako eta Baigorriko ziganteak, trikitalariak, txistulariak, gaiteroak, Basaldunak eta Uztaritzeko txaranga, Ezpela eta Kuxkuxtu txaranga. 11:30ean ekitaldia. 12:00etan Bas'hitza eta Irrintzina. 13:00etan Larrain dantza eta Jauziak. 14:00etan Ikastolako bazkaria.

Herriko etxearen aitzinean, arratsalde osoan, haurren xokoa izanen da eta Pontx paila-za 16:00etan. 14:00etan Ratapunk elektrotxaranga, 17:00etan Broken Brothers Brass Band, 19:00etan Larrain dantza eta 20:00etan taberna ibiltaria. Behereko plazan, 15:00etan bertso saioa familien xokoan: Aitor Etxebarriaza-



Nafarroaren Eguna Baigorriin.

rraga, Joanes Illarregi, Madalena Arzallus eta Nerea Ibarzabal. 16:30ean dantza ikusgarria. 17:30ean Kiki Bordatxo. 19:30ean Janus Lester. 21:00etan Willis Drummond eta 23:00etan Dupla.

### Kulturaldia

Hilaren 23an, igande honetan 18:00etan Baigorriko Bil Etxean, Lesakako Mairu antzerki tailerraren *Intxaurra* ikusgai izanen da.

**ZIGA**  
ELEKTRIZITATEA

**647 77 31 33**

Eguzki plaken instalazioak,  
argiztapen-azterketak  
eta elektrizitate lanak orokorrean





2018an jokatu zuten txapelketako finala Oizen. Aurten bi jokatuko dituzte.

## Final handia eta ttikia izanen ditu laxoa txapelketak

Bederatzi laukote lehiatuko dira eta bi finalak Oizen jokatuko dituzte, handia abuztuaren 5ean eta ttikia uztailaren 29an

### TTIPI-TTAPA

Laxoa Elkarrekin antolatutako Baztan-Errekako Laxoa Txapelketako 43. edizioa joan den asteburuan hasi da. Bederatzi talde ari dira eta aurten final handia eta final ttikia jokatuko dituzte, biak Oizen.

Taldee dagokienez, **Arraioz Sagardia** (Mikel Mindegia,

Xabier Mihura, Jon Gamio eta Miguel Maritorea), **Arraioz Zubiondo** (Aitor Zubigarai, Josu Etxandi, Urki Etxandi eta Oskitz Karrikaburu), **Doneztebe Apeztegia** (Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste, Iban Santesteban eta Joseba Juarena), **Doneztebe Avia** (Josu Juanena, Asier Mutuberria,

Jokin Apeztexea eta Julen Etxebeste), **Doneztebe The Moment** (Julen San Miguel, Javier Bertiz, Paskual Bertiz eta Koldo Legarra), **Doneztebe Titi** (David Mitxeo, Eloy Garcia, Erik Garcia eta Imanol de Rueda), **Irurita Arkupe** (Arturo Iturralde, Beñat Mariezkurrena, Hegoi Iturregi eta Aritz Bikondo), **Irurita Migelene** (Xabi Barberena, Gorka Urtaşun, Oinatz Jauntsarats eta Mikel Sagaseta) eta **Oiz** (Ioritz Zelaieta, Aimar Saldias, Laurendi Zelaieta eta Zorion Zelaieta) ari dira.

Denak denen kontra ariko dira eta ligaxkako bi lehenbizikoak zuzenean final handiko finalerdietarako sailkatuko dira. Hirugarren eta seigarren postuen artean sailkatzen diren laukoteek final laurdenak jokatuko dituzte. Irabazleek final handiko finalerdiak jokatuko dituzte, bi lehenbiziko sailkatuen kontra eta galtzaileek final ttikirako finalerdiak jokatuko dituzte, zazpigarren eta zortzigarren sailkatuen kontra. Beraz, ligaxkako azkena bakarrik geldituko da txapelketatik kanpo. Uztailaren 29an jokatu da final ttikia eta abuztuaren 5ean final handia eta hirugarren posturako lehia, hiru partidak Oizen.

## Jon Oskoz zenaren omenez egingen dute Izpegiko V. auto Igoera

### TTIPI-TTAPA ERRATZU

DRS Razing eskuderiak, Nafarroako Automobilismo Federazioaren laguntzaz antolatutako Izpegiko V. Igoera maiatzaren 6an egingen dute. Antolatzaileek erranetan, aurtengoa berezia izanen da, lehen aldiz Jon Oskoz zenaren omenez egingen baitute. Erratzu eta Baigorri lotzen dituen mendateko errepidean egingen dutelasterketa. Ibilbideak 5,200 kilometro izanen ditu eta lau txanda egingen dituzte, bi entrenamendutakoak eta bi lasterketa ofizialekoak. Errepidea 13:00etan itxiko da eta lasterketa 14:30ean hasiko da.



Erratzun bilduko dira autoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Uterga-Agirrezabala txapeldun Iruñean

Xanti Uterga doneztebarrak eta Agirrezabalak irabazi dute Iruñeko Alde Zaharreko erremonte profesionaleko bederatzigarren txapelketa, martxoaren 31n Labriten jokatuako final estuan Matxin III. ari eta Aimar Saldias oiztarrari 35-33 irabazita.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Nafarroako Herri Kirol Jokoen finala

Igantzin egitekoak baldin baziren ere, eguraldi euritsua zela eta Nafarroako Herri Kirol Jokoen finalak apirilaren 2an jokatu zituzten azkenean Sunbillako pilotalekuan. Proba konbinatuan, kadete mailan txapeldun izan zen Igantzi eta infantil mailan hirugarren.



Ander eta Karmelo Mitxelenak bosna domina lortu zituzten Ipar Irlandan. AITOR AROTZENA

# «Elkarrekin tiratu eta munduko txapelkun izatea izugarria da»

**KARMELO ETA ANDER MITXELENA BETI GAZTE SOKATIRA TALDEKO AITA-SEMEAK**

Bederatzi dominekin bueltatu ziren Beti Gazteko kirolariak Munduko sokatira txapelketatik. Horietatik bosna kolkoratu dituzte Agortxeberriko Karmelo eta Ander Mitxelena aita-semeek

**AITOR AROTZENA** LESAKA

Beti Gazterentzat hain emanorra izan den Munduko sokatira txapelketako foku argitsuak itzalita, Agortxeberriko aita-semeekin bildu gara.

**Handia egin duzue Ipar Irlandan. Espero zenuten?**

**Karmelo:** Nik pentsatzen nuen zerbait lortzen ahal zela. 2020an Letterkennyn jokatu genuen mundialetik ikusi nuen bazela salto bat ekipoa. Gazteek salto handia egin dute eta beteranook nolabait mantendu dugu, izan da progresio bat, ikusten zen ekipoa hobekiago zegoela. Egia errateko, irabaztea zail ikusten nuen, baina lehian egotea bai. Uste baino hobekiago atera zen.

Duela hiru urte, nahiz eta podiumera igo, ikusten zen txapelkunak gehiago zirela, guk podiumera igotzeko lehiatu ginen, ez irabazteko. Aurten, irabazi edo galdu, hor ginela ikusten zen, urrezko domina lehiatzeko moduan.

**Ander:** Duela hiru urte talde mistoarekin domina lortu nuen, baina nik ere sumatut gaiti egin dudala. Orduan hasiberria nintzen, suplente modura joan nintzela erran daiteke, baina poliki-poliki hartzen eta hobetzen joan naiz eta taldean gehiago sartu naiz. Orduan ez nengoen orain na goen mailan eta politagoa izan da. Podiumaren goitiko koxkan egotea sentsazio izugarria da,

zein talde menpean hartu dituzun ikusi eta handia da. Hor bakararra egoten ahal da.

**Eta lehen aldiz aita-semeak elkarrekin tiratuta munduko txapelkun...**

K.: 2004an Glasgown lortua genuen azkeneko urrezko domina. Aitzinetik bagenituen klub mailan bertze hiru irabaziak, Glasgowkoa laugarrena izan zen, baina aurtengoa izugarria izan da. Orduan jai

**«2024KO OTSAILEAN SUEDEAN IZANEN DUGU MUNDIALA»**

gabe zen Ander eta orain semearekin batera urrezko domina lortzea, orduan ere ondoan nituen Joxe Angel anaia-rekin, Beñardo lehengusua-rekin irabaztea ederra da... sentsazio izugarria izan da; taldeko poztasun horretaz aparte, semearekin batera irabaztearen poztasuna duzu, taldea eta familia batera. A.: Aitzineko mundialeko bideoa hainbat aldiz ikusia nuen eta neure buruari galdetzen nion zer izanen ote zen hori... eta aurten hori bizitu dugu, ezin da hitzez esplikatu.

**Atsedenerako tarte handirik gabe, orain Nafarroako 4x4 txapelketan hasiak zarete eta hamar hilabeteren buruan berriz mundiala Suedian...**

Suerte hori badugu. Aurtengo mundiala berez, joan den urtean egitekoa zen, baina ezin izan zen jokatu eta bi urtero egiten denez, heldu den urte hasieran berriz dugu Suedian. 2026koa Txinan izanen da, urruti ikusten dugu eta orduko ez dakigu nola egonen garen, segituko dugun, ekonomikoki posible izanen den, baina orain, hamar hilabetera berriz hor dugu mundiala Suedian eta horrenbertze urtez egitea kosta den blokea mantentzea errazago izanen da, lesiorik ez bada tarteko. Horrek ez du erran nahi dominak segurtatuak ditugunik, lan egin beharko dugu eta gogorra izanen da, punta-puntako talde aunitz badira hor, horretara joanen direnak, baina lehian egonen gara. Suedian ez gara behin ere egon eta gogotsu gaude. Bertze taldeek zer nolako errespetuarekin begiratzen zaituzten ikustea polita da. Eta hori, hainbertze urteren ondotik, berriz ere lortzea gosta denarekin, polita izanen zen berriz ere saiatzea, batez ere gazteengatik, gogoekin eta bulkaka ikusten ditugulako. Gazteek beraiek bulkatzen digute entrenatzera, gazte gutti ditugu, baina motibatuak eta onak. Beraiek dira etorkizuna.

## APIRILAK 20 - MAIATZAK 4

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



### LEITZA Udaberri pesta

Txistularien diana, erraldioen konpartsa, dultzaineroen kalejira, herri bazkaria eta Burrumba elektrotzaranga. Apirilaren 22an.

### SOLASALDIAK

#### LESAKA Sorgina Txirulina ipuin kontalaria

Liburutegian, apirilaren 20an, 17:30etan.

#### BERA 'Egoerak eta liburuak' solasaldia

Joseba Sarrionandiarekin. Liburutegian, apirilaren 21ean, 18:00etan.

#### ELIZONDO 'Batzango hegaztien eta kulturaren arteko loturak' ibilaldia

Marcos Isasi eta Gorka Valdesekin. Plazatik, apirilaren 23an, 11:00etan.

#### 'Idazleen gorputzak' liburuaren aurkezpena

Eider Rodriguezekin. Liburutegian, apirilaren 26an, 18:00etan.

#### 'Celos, toxicidad y ética en las relaciones' tailerra

Mikel Abaurrearekin. Gaztetxean, apirilaren 29an, 11:00etan.

#### LEITZA Ipuin kontaketa

Haizea Loirarekin. Liburutegian, apirilaren 24an, 18:00etan.

#### Aurretiazko borondateen inguruko hitzaldia

Arantzazu Lizartza eta Eburne Arrazubirekin. Herri Aretoan, apirilaren 27an, 19:00etan.

#### Energia Berriztagarrien Komunitatearen hitzaldia

Herri Aretoan, apirilaren 28an, 18:30ean.

#### ARANTZA 'Bar Gloria' liburuaren aurkezpena

Nerea Ibarzabalekin. Liburutegian, apirilaren 27an, 17:00etan.

#### IRURITA 'Bihurguneko nasa' liburuaren aurkezpena

Uxue Apaolazarekin. Gure Kaiola elkartean, apirilaren 28an, 18:00etan.

### IKUSKIZUNAK

#### LESAKA Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua

Harriondoan, apirilaren 27an.

#### 'NIK - EU' dantza emanaldia

Harriondoan, apirilaren 29an, 19:00etan.

#### 'Hamar urte hamaika dinamika'

Neomak taldearekin. Harriondoan, apirilaren 30ean, 19:00etan.

#### BERA 'Together to get there' dantza emanaldia

Kultur etxean, apirilaren 30ean, 18:30ean.

### PROIEKZIOAK

#### IRURITA 'Karpeta urdina' dokumentala

Gizarte Bilgunean, apirilaren 21ean, 19:00etan.

#### BERA '21 motius per caminar'

Beralandetan, apirilaren 22an, 18:00etan.

#### 'Contrabando y evasión en el Pirineo navarro' dokumentala

Kultur etxean, apirilaren 28an, 19:00etan.

### AZOKAK

#### ELIZONDO Batzango artisauak eta nekazariak

Plazan, apirilaren 22an eta 29an, goizez.

#### BERA Azienda feria

Toki Onako patioan, apirilaren 29an, goizez.

#### LESAKA Merkatu ttikia

Behoko plazan, apirilaren 29an, 10:30ean.

### JARDUNALDIAK

#### GOIZUETA Garagardo festa

Umore Ona elkartean, apirilaren 22an, 21:30ean.

#### ARANTZA IV. Mendi Lasterketa

Plazatik, apirilaren 23an, 09:30ean.

#### IGANTZI Gazte euskalzaleen topaketa

Apirilaren 29an.

## «Herrian bizitzea aukeratu dugunok herriari bizia eman behar diogu»

AINHOA MIURA ARIZTIA UGARANA EMAKUME ELKARTEKO KIDEA



«Urdazubin sortu eta bizi den emakume arrunta» da Ainhoa Miura Ariztia. «Musika aditza, filmak ikustea, dantzan egitea eta etxekoekin denbora trankilki pasatzea» du gustuko, eta herriko Ugarana Emakume Elkarte kidea da.

### Taldearen sorrera

2000. urteko martxoan sortu zen elkartea; «bere garaian emakume talde bat josteko klaseak emateko elkartzeko hasi zen. Klaseak ematen zituen irakasleak ezin izan zuen hauek ematen segitu, baina emakumeek hala ere elkartzeko segitzea erabaki zuten. Orduan, Urdazubin zegoen idazkariari esker, emakume elkarte bat egitea erabaki zuten». Helburua argi zuten: «herrian gauza berriak egitea eta bizi gehiago ematea». Horrela, lanetik ateratzean

gelditzen hasi ziren, «gauza berriak ikasteko: josteko klaseak, aerobika, gimnasia...».

Urdazubitik pasatzen den erreka izena hartu zuen elkartea, «Ugarana».

Duela 15 urte elkartea antolatzen zituen jardueretara joaten hasi zen Miura, «kuota bat ordainduta elkarteko kide gisa sartzen ginen». Hala ere, ez da kide hutsa; «duela sei urte elkarteko juntan sartu ginen kuadrillako hiru lagun eta hor segitzen dugu. Gainera, aurten bertze bi neska gazte sartu dira eta orain belaunaldi aunitzetako emakumeak gaude juntan. Aski positiboa izanen dela pentsatzen dut».

### Aspertzeko astirik ez

53 emakume dira elkartean; «Urdazubiko eta inguruko emakumeek osatzen dugu

taldea eta egiten ditugun saio eta kursoak Xaretako jende guziari zabalduak daude. Hor-taz, jendea kurso hauetan parte hartzea animatu nahi dut». Izan ere, gaur egun bi jarduera dituzte martxan: *stretchinga* eta yoga-pilatesa. «Orain arte zumba ere ematen zen, baina aurten ezin izan dugu. Ea hurrengoan posible dugun».

Hala ere, taldearen jarduera ez da klaseetara bakarrik mugatzen; «emakumearen egunaren inguruan jarduera batzuk antolatzen ditugu: elkarretaratzea egiten dugu, sagardotegira joaten gara afaltzera, emakumeen gaia-ekin zerikusia duen bakarriketa bat ekartzen dugu... aurten, adibidez, Alazne Etxeberria etorriko da maiatzaren 12an, 19:00etan, eta ondotik afaritxo bat egitea pentsatu dugu. Ekainean, berriz, film euskaldun eta ezaguna ekarri behar dugu kultur etxean ikusteko». Udaletxearen eta Emakume Sailaren laguntzarekin antolatzen dituzte ekitaldiak.

Honez gain, «urtero beste-tako ortziraletan emakumeen bazkaria antolatzen dugu. Haur, heldu eta gazteen tarteak izaten diren bezala, emakumeendako tokia behar zela ikusi genuen. Emakume helduak joaten dira, eta faltan botatzen dugu neska gazteen parte hartzea».

### Berdintasunerantz

Elkartean parte hartzeko arrazoia argi du: «herri ttikietan ez da lanetik kanpo egiteko gauza haundirik izaten, batez ere neguan, eta kurso hauekin ariketa fisikoa egin eta osa-

luna zaintzeaz aparte, adin guzietako gizon eta emakumeak elkartzeko gara eta horren aberastasuna ezin dugu ukatu. Herrian bizitzea aukeratu dugunok herriari bizia eman behar diogu».

Baina hori ez da arrazoi bakarrak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna baitute helburu: «aitortu behar dugu emakumeen egoera aldatu dela, baina oraindik gauza aunitz egin behar dira. Batzuetan penagarria iruditzen zait gaur egun dauden aitzinamenduekin oraindik geure eskubideen alde borrokatu behar izatea. Denok eskubide berak behar ditugu, nahiz emakume, arraza, elbarritasun fisiko, gaixotasun mental...».

«Berdintasunetik urrun» ikusten ditu emakumeak; «etxetik kanpo egiten dugu lan, baina familiaren zaintza gehiengoa emakumeen bizkarrean dago oraindik, eta gu gara baimenak eta lanaldi murriztuak eskatzen ditugunak geure seme-alabak zaintzeko». Honez gain, «lanak ere aunitzetan ezberdinak dira. Urdazubin, adibidez, ez dut emakumerik alkate lanetan eza gutu, eta zinegotzi gehienak gizonezkoak dira».

Berdintasuna «denon borroka da. Ez du erran nahi gizonen kontra gaudenik, eskubide berak nahi ditugula baizik».

### Etokizunera begira

«Herriari bizia ematea eta helduek eta gazteek bat egitea» da Ugaranaren asmoa, «elkarteari esker elkar ezagutzea eta momentu goxoak pasatzea da gure helburua. Eta emakumearen gaiaz solastatu garen honetan, denok lan egin behar dugula pentsatzen dut. Bakoitza bere etxetik has dadila, geure seme-alabak berdintasunean hezten. Niri esaldi hau gustatzen zait: *Izan zirelako gara, garelako izango dira*».

**«BERDINTASUNA DENON BORROKA DA, EZ GAUDE GIZONEN KONTRA»**

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI

**BERA.** Bi familiako etxebizitzan, bizitzetako bat salgai, Matzada futbol zelaiaren inguruan. Behean garaje bikoitza, txokoa, trastelekua, komuna, sukaldea eta dutxa. Lehenbiziko solairuan sukalde-jangela, egongela eta komuna... Bigarren solairuan hiru logela, bat handia bere dutxarekin. ☎660 78 53 05 / 629 18 80 88.

**ELIZONDO.** Giltxaurdi karrikan pisu eguzkitsua salgai: 3 logela, jangela, balkoia, hall, bainugela (berritua) eta sukaldea (berritua). Bizitzera sartzeko prest. 105.000 euro. ☎676 88 83 35.

#### ERRENTAN HARTZEKO


**BERA.** Bikote bat pisu bila. ☎638 72 56 83.

#### ERRENTAN EMATEKO

**LESKA.** Bikote bat pisu bila. ☎640 65 04 22 / 644 38 41 04.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### SALGAI



**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 150 m<sup>2</sup>ko garajea salgai edo errentan emateko. Altura handia du eta zati batean tarteko solairua ere badu. Inguru lasaia eta eguzkitsua. ☎649 446 732.

### LURRAK/ORUBEAK

#### ERRENTAN HARTU

**BORTZIRIAK.** Partikular batek baserria baratzearekin errentan hartuko luke. Seriotasuna eta fidagarritasuna bermatu nahi ditu. 800 eurora arte ordaintzeko prest. ☎657 05 04 43 (Jose M<sup>a</sup>).

### LANAK

#### ESKAINTZAK

**IBARDIN.** Fruta dendan eta harategian aritzeko pertsona bat behar dute. Astean 40 orduko lanaldia. Frantsesa jakitea eta autoa izatea beharrezkoak. Bidali curriculuma: [beolaetxea@gmail.com](mailto:beolaetxea@gmail.com).

**IBARDIN.** Bentan batean kutxazain aritzeko pertsona bat behar dute. 40 orduko lanaldia astean. Frantsesa jakitea eta autoa izatea beharrez-

### IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.erran.eus](http://www.erran.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 EURO** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 EURO** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

Ttipi-ttapa aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **BIZUM** bidez (744 48 43 61)

Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

koak. Bidali curriculuma: [beolaetxea@gmail.com](mailto:beolaetxea@gmail.com).

**IBARDIN.** Mendiko jatetxean sukaldean lan egiteko langile bat behar dute. Langilea eta ikasteko gogoz dagoena. Bi asteburu segidan lan eginda, hurrengo asteburu bat libre. Hilabetean 22 lanegun. Eguerdiko zerbitzuan aritzeko bakarrik. Interesatuz gero, Ibaringo Mendiko jatetxera hurbildu.

#### ESKARIAK

Irakasle ikasketak egiten ari den neska gaztea ikasten ari den bitartean lanean aritzeko prest. Ikaskekin lotuta, umeak zaintzen aritzea gustatuko litzaioke. Astez lan egiteko moldatzeko prest, eta asteburuetan eta oporretan libre izanzen litzateke. ☎677 24 85 00.


**ELIZONDO**ko 15 urteko neska udan haurrak zaintzeko prest. ☎623 16 54 14

### ANIMALIAK

#### SALGAI

**BERA.** Hiru ahari mutur hori salgai. ☎697 44 05 90.

#### OPARITZEKO



**DONEZTEBE.** Bi zakurkume oparitzeko. Border Collie arrazakoak. ☎609 48 60 52.



Border collie arrazako bi zakurkume oparitzeko, euskal artzainarekin nahastuak. Hiru hilabete dituzte. Txertatuak. ☎629 32 77 83.

Border Collie eta artzain zakurraren nahasketa diren 2 zakurkume opari, txuri-beltzak. ☎690 15 46 44.

### DENETARIK

#### SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Egur idorra salgai, pagoa eta haritz amerikarra. Sutarako prest. Etxera eramateko zerbitzua eskaintzen da, lote osoa nahi izanez gero ere zerbitzu bera. ☎634 70 33 10.

### ZERBITZUAK

#### ZURGIN LANAK

**ARANTZA ZURGINDEGIA**  
Klase guzietako zurgin lanak  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe  
Jose Miguel Errandonea - ARANTZA  
647 810 144 - 626 093 181

### MOTORRAK

#### TAILERRAK

**GANIX**  
Tasmatza  
948 63 06 69  
Zalain Pol., 11 - BERA  
EUROMASTER zegoen lekuan

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

##### Aretze gizenak:

- Idixkoak: €/kg kanal**
- Extra 5,34 €
  - 1.koa 5,22 €
  - 2.koa 5,10 €

##### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,45 €
- 1.koa 5,31 €
- 2.koa 5,20 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

##### Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

##### Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 150,00 €

##### Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 140,00 €

#### ZALDI-AZIENDAK

##### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,30/5,40€
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69€

#### ARDI-AZIENDAK

##### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,80/8,90 €
- 8-10 kilokoak: 6,90/7,60 €

#### ZERRI-AZIENDAK

**Zerrikumea** (19 kilo): 114 €

**Zerri gizona** 2,025 €

**Zerramak** 1,410€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernu martxoaren 31tik apirilaren 7ra bitarteko prezioak)



744 484 361

**ttipi-ttapa**


## URTEBETETZEAK



Arantzako **Adei Iturria Guruchetek** 2 urte beteko ditu apirilaren 27an. Aunitz urtez morroxko! Muxu handi bat Lesakako eta Arantzako familia guztiaren partetik!



**Mikel Barrenetxe Alzuri** arantzarrak 6 urte beteko ditu apirilaren 28an. Aunitz urtez eta muxu pila bat Arantzako eta Erratzuko familien partetik. Ongi pasatu zure urtebetetze egunean!



Iturengo **Irati Iñigo Lujanbiok** 8 urte bete ditu apirilaren 12an. Zorionak familia guztiaren partetik.

## Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak!

**Internetez** <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

**Bulegoan eta postaz:** Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

**Whatsapez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

## DONEZTEBEko AVIA GASOLINDEGIA



CLUB AVIA txartelarekin  
%2ko deskontua erregaian  
eta %5eko deskontua  
dendako produktuetan



Leitza bidea, 49 · T. 948 451 679 · [www.doneztebe.net](http://www.doneztebe.net)

## Mendaur Motor

Leitza bidea · DONEZTEBE  
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak  

MITSUBISHI MONTERO  
DID KEITEKI



TOYOTA LAND  
CRUISER 3.0 D4D



[www.mendaurmotor.com](http://www.mendaurmotor.com)

## BERAKO UDALA

### URA BANATZEKO SAREA BERRITZEA ZALAINGO BILTEGIKO GILTZEN GANBERATIK BERAKO (NAFARROA) FORU PLAZARA

Berako Udalaren Osoko Bilkurak, 2023ko martxoaren 22an hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zuen «Ura banatzeko sarea berritzea Zalaingo biltegiako giltzen ganberatik Berako (Nafarroa) Foru Plazara» proiektua, bai eta proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda ere. Onarpen horretan, onura publikokotzat eta okupatu beharrekoztat jotzea inplizitu geratzen da. Halaber, Nafarroako Gobernuari, horretarako eskumena duen organoa den aldetik, eraginpeko ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu beharrekoak direla deklaratzeko eskatzea erabaki zen.

Erabaki osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, 64. zenbakian, 2023ko martxoaren 30ean.

Bera, 2023-03-30  
ALKATEA,  
Aitor Elexpuru Egaña

## Panelak - Biniloak

Seinaletikarekin zerikusia duten materialak  
Aluminiozkoak, PVCzkoak, biniloak, olanak eta abar

## PANELAK-TOTEMAK



**INFORMAZIO PANELAK**  
Egurrezko egiturekin edo gabe

**Ezaugarriak:**  
Galdetu neurri eta materialen aukerak




## ROLL-UP



**ROLL-UP**  
Garralo poltsarekin  
**Ezaugarriak:**  
Galdetu neurri eta kalitate aukerak

## BINILOAK



**KULTURKARI**  
Dizaina grafiko | Publikatza

**INFORMAZIO GEHIAGO:**  
Koskontako bidea, 7-1 - LESAKA  
Tel: 948 63 54 58  
[kulturkari@ttipi.eus](mailto:kulturkari@ttipi.eus) · [www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

URTEURRENA

**Balaxi  
ANDRESENA ZUBIGARAI**  
2019ko apirilaren 15ean  
IV. URTEURRENA

*Hegoak ebaki banizkio,  
nerea izango zen,  
Ez zuen alde egingo  
Bainan, honela  
ez zen gehiago txoria izango  
Eta nik... txoria nuen maite.*



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Bernardo  
REKALDE BARRENETXE**  
1926-12-14 / 2017-04-15  
VI. urtemuga



*Bizitorea eta bizizalea izan zinen.  
Halaxe ezagutu zintugun;  
halaxe izan nahi genuke.*

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Mikaela  
Apezetxea Arribillaga**  
Leiztan, 1921-06-09 / 2021-04-21  
II. urteurrena

*Eskeilara bat  
marraztuko dat,  
nire etxetik  
zure leñera,  
herreka gau ilanetan  
elkartuko gara,  
izarren artean  
zeruaren erdian*



URTEURRENA

**Joseba Andoni  
URDANITZ ETXEBERRIA**  
2002ko apirilaren 2an  
XXI. urteurrena



*Udaberriak bizia ekarriz  
zure askatasun modua gogoratzen du  
zure ametsak buruan izanik  
zure indarra gure egiten dugu.*

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Joakin  
IRAOLA ARMENDARIZ**  
Eneritz Iraola gure lankidearen aita

Momentu gogor hauetan  
famiariarekin bat egiten dugu.



URTEURRENA

**Donato  
LIZARDI GISASOLA**  
Arantzan, 2017ko martxoaren 28an  
VI. URTEURRENA

*Beltxaren atsedena  
eta nire bizipoza,  
beti nire bihotzean  
baina sei urteren ondotik  
aitzinerara segitzen dugu.  
Ezin aipatu gabe utzi  
bere inguruan zaintzaile izan ginenak,  
Erdialdeko Amerikako emakumeak,  
familia eta ilobak.  
Goian Bego.*



**IRACHE**  
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Inufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70  
www.tanatoriosirache.es

**IZARRA**  
HERRI, ZURE ONDOAN  
ANIMA PULSADO





TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

Gure burra,  
gure jendea,  
gure sustraiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



## KONTATU KONTUAK



**Baztan-Bidasoko gazteak Gazte Topagunean.** Ernai gazte antolakundeak Gazte Topagunea antolatu zuen joan den apirilaren 6tik 9ra Elorrion (Bizkaia) eta eskualdeko hainbat gaztekin parte hartu dute bertan. Horren erakusle da argazki hau. Independentzia, sozialismoa eta feminismoa aldarrikatzeko hainbat jarduera izan zituzten: solasaldiak, ikuskizunak, kontzertuak, tailerrak, ekitaldiak... gazteek ez dute aspertzeko aukerarik izan.



**Mendi Abesbatzakoak Iruñeko Baluartean.** Mendi Abesbatzako kideendako egun berezia izan zen apirilaren 3a, Iruñeko Baluartean izan baitziren Iruñeko Gazte Orkestrarekin batera kontzertua ematen. Ekimenean parte hartzeko gonbidapena Nafarroako Abesbatzen Elkarteak egin zien.



**Errigorako kutxak Zubietara eta Donamariara.** Errigoraren produktuekin osatutako bi kutxa eder zozketatu ditu TTPI-TTAPAK ERRAN.EUSEKO lehiaketan parte hartu duten Ttipi Txarteldunen artean. Sariak Malerreka joan dira. Kutxetako bat Nerea Bazterrika Loiarte zubietarrak lortu du eta bertzea Marta Etxegia Telletxea donamariarrak. On egin bikote!



**Bertako hornitzaileekin eta Nafarroako kalitatezko markekin duten konpromisoa saritu du Reyno Gourmet-ek.** Reyno Gourmet kalitate zigiluak Nafarroako kalitatezko markekin eta bertako hornitzaileekin duten konpromisoa eskertu eta saritu nahi izan die Nafarroako 25 ostatu-jatetxeri. TTPI-TTAPAK hartzen duen eskualdean, Elbeteko Posada, Elizondoko Itzalargiko borda, Donamariako Benta, Arantza Hotela eta Leitzako Lopenea landa ostatua izan dira errekonozituak.



**BAZTAN:** ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
**BORTZIRIAK:** BERAn San Jose Beilatokian  
**MALERREKA:** DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3  
**web:** [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU | 948 48 95 50**  
**365 EGUN | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)**

*Betiko taldea zu laguntzeka*

**ZORIONAK!**  
AITOR MUTUBERRIA ZELAIETA!


827. aleko irabazlea zara!

# PLAZAN BAZAN



## NORK ZER

Gure laguntxoek liburu bana irakurri nahi dute. Zein hautatuko du bakoitzak?



ENEKO

---

---

---

EIDER

---

---

---

NIKOLE

---

---

---

AIMAR

---

---

---

## HANDIENETIK TXIKIENERA

Zazpi loreok handienetik txikienera ordenatu behar ditugu.  
Handienari 7 zenbakia eman eta txikieneri 7.



Loguntzallea:

ibaizabal

### Plazan bazan egiteak BADU SARIA!


Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin apirilaren 25a baino lehenago.

Ttipi-Ttapako Whatspera: (0034) 774 48 43 61 zure izen abizenak jarrita.

Goian duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!

## DOMINOAN

Marraz itzazu falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.



### INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)

**Ttipi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSU-TRUK  
-%80 ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61  
info@ttipi.eus | erran.eus  
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

**827** zenbakiko irabazleak >



# ZOZKETAK

- Donostiako Aquariuma - Bi sarrera  
Gloria Zelaieta Martikorena | BERA
- Buatxabal - Poltsa bat  
M<sup>a</sup> Jose Urroz Telletxea | DIZ
- Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat  
Begoña Quintano Fernandez | ATARRABIA
- Irrisarri Land - Sarrera bat  
Begoña Elizalde Aldaia | DONEZTEBE
- Elizondoko kiroldegia - Bi sarrera  
Hilario Irigoien Etxegoien | ELIZONDO
- La Rhune - Sarrera bat  
Jose Luis Sein Sansiñena | IGANTZI
- Fantxike - Pijama bat  
M<sup>a</sup> Angeles Narbarte Loiarde | LEKAROZ
- EDR Gunea - Lote bat  
Mila Lasarte Cabezón | LEITZA
- Mauka - Hiru CD  
M<sup>a</sup> Emerita Ariztegi Iribarren | LEGASA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
www.aquariumos.com



Bi sarrera

**ONDDO TA PUNTO**  
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

**EZKEXA**  
www.ezkexa.com



Kasketa bat

**BKZ ABENTURA**  
www.navarraaventura.com



Sarrera bat

**TABERNA EDARIAK**  
www.tabernaedariak.eus



Lote bat

**MENDUKILO**  
www.mendukilo.com



Bi sarrera

**MARTIKO**  
www.martiko.com



Lote bat

**KAPRITXO**  
619 45 02 49 - Leiza



Scinoko bat

## LIBURUAREN EGUNEKO ZOZKETA BEREZIA



Liburuaren eguna  
dela eta zozketa  
beresia antolatu  
dugu. Ibaizabal  
argitaletxearen  
liburuak eta hainbat  
CD zozketatuko  
ditugu.  
Zorte on!



## LIBURUAK

Hiru liburu



**ekar**  
www.elkar.eus